

Herririk Herri |7|

Presoen egoera salatzen dauen mozinoa onartu dau Elorrioko Udalak



Berbaz |9|

Joseba Barandiaran: "Politikak du krisiaren konponbidearen gakoa"

Ekonomia |10|

Sindikatuak greba orokorrerako deialdi bateratua egin dabe Durangaldean

Eraso sexistak salatzeko protesta ekitaldia egin dabe

Mallabia • Emakume bat "bortizki jipoitua" izan dela salatu dau asteon Mallabiko Udalak. Eguaztenean egindako udalbatzarrak eraso sexistaren kontrako idatzia onartu eban. Jarraian, elkarretaratzea egin eben gertaeron aurrean "Udala ezin dela isilik gelditu" adieraziz.

3

Agente hiritarrak, abadiñarrak kontzientziatu guran


Abadiño • Herrian dihardueen lau agente hiritarrek maiatzaren 4an ekin eutsien lanari. Elkarbizitzaren kontrakotzat jotzen ditueen ekintzen inguruan herritarrek ohartarazteko, Abadiño auzo eta kaleetan hainbat erronda egiten dihardue.

4

'Rock terapia' disko barria dakar Lor-ek

KULTURA • Gaur Hendaiaiko Kanttun eta maiatzaren 22an Plateruean eskainiko ditu Elorrioko Lor hirukoteak *Rock terapia* disko berri-rako prestatu dituen kantak. Disko barri horretaz jardun jakuz.

13



•Durango

Gay oroitarria jarriko dabe domekan Landakon

3

•Iurreta

Motorzaleen I. Topaketa egingo dabe domekan

4

•Mañaria

Aste Kulturala hasiko da

6

Kalebarriko liburutegia martitzenetik zabalik

> Asteleheneko inaugurazina herriko elkarte eta taldeak gonbidatu ditue.

> Kultur azpiegitura barria atontzeko hiru milioi euro erabili ditu Udalak.

2



J.Fernandez

Eskualdea kolore zuri-gorritz jantzi zen eguaztenean

Durangaldea • Eguazteneko Athleticaren eta Bartzelonaren arteko Kopako finala jarraitzeko, hainbat pantaila erraldoi jarri zitueen eskualdean. Durangaldek irten barik, Mestallako giroa

geurean bizitzeko aukera izan genduen. Zurigorrien golak Athleticzaleak ilusinoz bete zituen arren, laster heldu zen Bartzelonaren erantzuna. Beste batean izan beharko dau.

8



HERRIRIK HERRI >

■ DURANGO

Martitzenean zabalduko dabe Kalebarriko liburutegia

Astelehenean, 19:00etan, inaugurazino ekitaldia egingo dabe herriko elkarte eta kolektiboekin

Martitzenean zabalduko ditu ateak jendaurrera Kalebarriko Udal Liburutegi barriak. Bezperan, 19:00etan, inaugurazino ekitaldia egingo dabe eta udal arduradunak ez eze herriko elkarte, kolektibo eta ikastetxeak gonbidatu ditue. Biharamunean, erabiltzaile guztiei zabalik izango da 1.785 metro koadro erabilgarri dituen kultur azpiegitura: 09:00etatik 21:00etara. Hiru milioi euro inguru erabili ditue, aldi berean 300 lagun batzeko aukera emoten dauen liburutegia atontzeko.

Uriko eskola, liburutegia eta Udal Musika Bandaren entsegu lekua izandako Kalebarriko XVIII. mendeko eraikinari Komentukalen altxatutako barria gehituta osatu dabe azpiegitura; kristalezko pasabideagaz lotu ditue biak. Bai Kalebarritik bai Komentuka-

letik sarrera izango dau, Garai Jau-regiaren lekua hirubidertuz.

Irakurketarako espazioa izango da Kalebarriko gunea, eta beheko-solairuan egunkari eta aldizkariak irakurri edo musika entzuteko aukera eskainiko dau. Horregaz lotutako irakur-gunea batuko dau Komentukalekoak, ikus-entzunezko gela eta taldean lan egiteko lekua ez eze; tailerrak, erakusketak, ikasteko gunea... sortzeko aukera eskainiz. Sotoan Artxibo Historikoa gordeko dau, besteak beste. ■ A. Basauri

Denera, 1.785 metro koadro erabilgarri batzen ditu eta 09:00etatik 21:00etara egongo da zabalik



Aldi berean 300 lagun batzeko aukera eskainiko dau Udal Liburutegi barriak. A.B.

Ekainean zabalduko dabe Lariz Torrea jendaurrera

Turismo Bulegoa eta Durango Eraikitzen hartuko ditu XV.eko eraikinak

Lariz Torrea berreskuratzeko lanak amaitu ditue, eta ekainean zabaldu gura dabe jendaurrera, seinaletika plangintza osoa garatu eta gero. Turismo Bulegoa batuko dau Lariz Torreak lehenengo pisuan; bigarrenean Durango Eraikitzen elkarte publikoaren bulegoak, orain Udaletxean dagozenak. Azkenengo pisuan erabilera askotarako gunea sortuko dabe, "Durango norako turistiko lez zelan eskaini hausnartzera" bideratuz, Aitziber Irigoras alkatearen berbetan. Turismo Bulegoan lagun bik jardungo dabe egun osoz.

XV. mendeko eraikinak 110 metro koadro erabilgarri batzen ditu solairuko, eta zaharbarritzeko 950.000 euro erabili ditu Udalak. Jauregi Gotiko lez eraiki zen, hainbat aldaketa izan dituen arren; 1903an, auzokide-etxebizitza lez be jarri eben, Aurea Perez obraren arduradunak argitu dauenez.

Harlanduzko obra agerian itzi dabe —fatxadak, batez be—.

Harriak eta zurak emon ei dabe lanik gehien. "Ahal izan doguna zaharbarritu egin dogu, eta behar zena ekarri. Fatxada guztia berreskuratu dogu: Erdi Aroko leiho bi atera doguz; itxita zegoena zabal-

Lariz Torreak hiru pisu daukaz, 110 metro koadro erabilgarri batuz bakotxean

Jauregi gotiko lez eraiki zen, urteetan hainbat aldaketa izan dituen arren; 1903an etxe bloke izateko egokitu eben

Turismo Bulegoa lekualdatu aurretik, bisita gidatuak eratuko ditue Lariz Torrera

du dogu eta desagertuta zegoena zaharbarritu". Estalkiaren ia ezer ez ei dabe aprobeztatzerik izan.

Ikuztegi publikoak

XIX. mendea aurretiko ikuztegi publikoak be berreskuratu ditue, 2007ko iraila eta urria bitartean hasitako lanok. Horrek atondue eta lorategia jarri gura dabe inguruan. Pinondo Etxearen atzealdeko Sanagustinaldeko etxea bota eta ingurua be urbanizatuko dabela aurreratu dabe udal arduradunek. Oinezkoendako pasabideagaz lotuko dabe atondutako inguru hori eta Lariz Torrea.

Azken bost urtean Askatasun etorbidean dirauen Turismo Bulegoa lekualdatu aurretik, Lariz Torrea ezagutzeko bisita gidatuak egingo ditue, bertako arduradun Natalia de Naveranek azaldu dauenez. Expovacaciones turismo eta aisialdi azokan 1.707 laguni emon jakela arreta be argitu dau; igaz baino 275 gehiagori. ■ A. Basauri



Eraikina zaharbarritzeko 950.000 euro erabili ditu Udalak. A.B.

Hamarkada bete dau Marisatsa elkarteak

Bidezko merkataritzako ekoizpenak eta janari ekologikoa zabaltzen ditue Durangaldean

Hamarkada bete dau dagoeneko bazkideen artean bidezko merkataritza produktuak zein jaki ekologikoak zabaltzen dituen Marisatsa elkarteak. Horretaz arduratzen dira batez be; izan be, orain dela gitxi arte ez zegoen banaketa-merkatu zehatzik produktu horreetarako, jakin eragin dabenez.

Durango Gollanda kalean dauka egoitza Durangaldeko Marisatsa elkarteak

Halan be, bestelako arloetan be lan egiten dabe. Holan, nekazaritza ekologikoaren printzipioetan oinarritutako jakiak aukeratu, "lurraren osasunari laguntzea" dau helburu produktu ekologiko eta bidezko merkataritzaren kontsumorako Durangaldeko elkarteak. Horretaz gainera, toki-

ko nekazaritza-merkatua eta "herriekiko eta izadiagazko errespetua ekarriko daben produktuen kontsumoa" sustatu gura ditue.

Lurraren erabilera "egokia" Lurragazko errespetua, ezagutza eta erabilera "egokia" sustatzeko jarduerak antolatzen sortu eben Marisatsa, eta osasunari zein bizitza osasuntsuari buruzko informazioa zabaltzeko (berbaldiak, argitalpenak...). Tratamendu kimikorik eta pestizidarik bako nekazaritza bultzatu gura dau elkarteak, kontsumitzaileen interesak defendatuz, eta dirua eta baliabideen erabilera solidario eta kontzienteagoa bultzatuz.

Durango, Gallanda kalean daukie egoitza (12-B, behe 3). Martitzen eta eguenetan 19:00etatik 21:00etara dago bazkideentzat zabalik; eguaztenetan, egun osoan (11:00-13:00 / 18:00-21:00). ■ A.B.

Gay oroitarria jarriko dabe domekan Landakon

Ekitaldia ez eze, bazkaria eta antzerkia eratu ditue; baita elkarretaratzea be, Andra Marian

Euskal Herrian gay askapen erakunde sortzeko ideia 1976an jaio zen, Durango Euskal Liburu eta Disko Azokaren giroan. Halan gogoratu dau Euskal Herriko Gay Askapen Mugimenduak (EHGAM). Hori aintzat hartuz, gay oroitarria jarriko dabe Landakon, "nahiago-tasun homosexualagaitik jazarpena jasan daben edo euren afektibitatea askatasunez bizitzeko borrokatu direnen omenez".

Gogoratu dabenez, frankismoaren biktimen artean "euren homosexualitateagaitik kartzelaratuak, torturatuak edo besterik barik erailak izan ziren milaka eta

milaka" ez dira aitatzen. Landakoko parkean jarriko dabe oroitarria, eta inaugurazino ekitaldia 12:30ean hasiko da (Elkartegin batuko dira, 10:30ean). Bazkaria izango da 14:30ean, eta 16:00etan *El sendero de las baldosas rosas* (Ortzaín) ikuskizuna hasiko da; gero, Las Fellinik jardungo dabe. Elkarretaratzea be deitu dabe, 18:30ean Andra Marian. ■ A.B.

Landako parkean 12:30ean hasiko da gay oroitarriaren inaugurazino ekitaldia

SMALLABIA



Herritar askok bat egin eban Udalak antolatutako protesta ekitaldiagaz. Judit Fernandez

Genero biolentziaren aurkako elkarretaratze jendetsua

Emakume bat "bortizki jipoitua" izan dela salatu dau Udalak

Eraso sexisten kontra Udalak martitzenean frontoi aurrean deitutako elkarretaratzeak ehun lagunetik gora bildu ditu.

Protesta ekitaldi horren aurretik, udalbatzak indarkeria matxistaren kontrako idatzia onartu dau. Testu horretan adierazi dabenez, "azken hileotan emakume bat bortizki jipoitua izan da Mallabian". Gaineratu dabenez, gertaera beldurgarri hori ez da "kasu isolatua". Egoeraren aurrean Udala "ezin dela isilik gelditu" azaldu dabe, herrian une honetan bi hurruntze-agin du dagozela gogorazoz.

Emakumeen kontrako indarkeria ekintzak kondenatzeaz gainera, biktimak eta euren hurbi-

lekoak babesteko asmoa agertu dabe. Mallabitar guztiei dei egin deutse erasoaren aurrean "tolerantzia zero" izateko, eta "jarrera aktiboa" hartu daien. Erakundeei

"zurikerietan eta hitz politetan geratu barik" emakumeengana-ko indarkeriagaz amaitzeko intetzino serioa eta zintzoa izan daie-la eskatu deutse. ■ P.M.

Azoka eta erakusketak Maiatza Kulturalean

Herriko kultur taldeek Udalagaz elkarlanean hilabete osoan zehar Maiatza Kulturaleko egitaraua antolatzen dihardue. Gaur arratsaldeko 16:00etan umeentzako antzerkia izango da. Domekan, umeentzako zinema proiektatuko dabe, 16:30ean. Maiatzaren 23an, abesbatzen kontzertua izan-

go da guraso elkarteak pilotalekuan antolatuta, herri-bazkaria ez eze. Hilaren 17, 21 eta 28an Biharko Izarrak VI. Txapelketa jokatu da. Maiatzaren 24an, azokarekin batera bi erakusketa egingo dira; bate-tik *Emakumea eta baserria* izeneko eta bestetik Ermua Ulan Mallabia taldeak antolatuta dauena. ■ P.M.

TXIRRI TXIRRI
Txutxes denda
zabalik asteburu eta jaiegunetan
Zelategi 8. behe, Abadiño
Tel. 649 40 49 80

ZAINDU HAGIN KLINIKA
ODONTOLOGIA OROKORRA
ESPEZIALITATEAK
Mari Tere Zamalloa Juaristi • Periodontzia espezializaturia
Kolegiatu zenb.: 1005
Ferialeku 1 - ABADIÑO • 94 465 73 42

ondo pasa
San Trokazetan!

durango

irtenaldi laburrak

Durango Turismo Bulegoa
Askatasun Etorbidea, 2
(Luzer Larriz Domene)
48200 DURANGO
Tel.: 94 603 39 38 - Faxa: 94 603 39 46
turismo@durango-udala.net
www.durango-udala.net

Bizkaia
EUSKADI

ABADIÑO

“Elkarbizitzaren aldeko kontzientzia pizteko”, agente hiritarren figura

Herritarrek kontzientziatzea dabe hiri agenteek egiteko nagusi, udal arduradunek dinoenez

Lankidetzaz sozialerako INEM-ek bultzatzen dauen proiektuagaz bat egin dau Abadiño-ko Udalak agente hiritarren figura sortzeko. Orain bi astetik dabilz lanean txanda bitan lau langile. “Herritarrek kontzientziatzea” da euren egiteko nagusia.

Elkarbizitzaren kontraktatzat jotzen ditueen ekintzen inguruan herritarrek ohartaraztea da agenteon funtzinoa; besteak beste, trafikiko arau-hausteak gixtitzera, txakurren gorotzak kalean ez iztera, eta zabor-ontzietan poltsak behar den moduan iztera bultzatzea.

Udal arduradunek hiri-agenteen figura barri hau sortzea azaltzeko emon daben arrazoia “denon artean isun ekonomikoak saihe-

tu ahal doguzela mentalizatzea” dela nabarmendu dabe.

Goizeko 9:00etatik gaueko 21:00ak arte egiten dabe egunero txanda bitan lan. Goiz eta arratsaldez Abadiño kale eta auzoetan egiten ditue errondak.

Goizeko 09:00etatik gaueko 21:00ak arte burutzen dabe hiri-agenteek euren eguneroko lana

Maiatzaren 4an hasi ziren lau hiri-agenteok lanean, eta euretariko bi ezagutu doguz asteon, Matienan ohiko erronda egiten zebizela. Abadiño gainerako



Arratsaldeko txandan euren erronda egiten topatu doguz hiri-agenteak. I.E.

auzoetan be euren errondak egingo ditueen arren, batez be Matienan egiten dabela euren lana azaldu deuskue, herritar gehien be auzo horretan batzen delako. Hiri agenteen egitekoan bi aste dihar-

Maiatzaren 4an hasi ziren euren lana txanda bitan egiten lau hiri-agente

dueenean, ezelako arazo berezirik ez dabela izan, baina jentea ohi-tu arte denpora igaroko dela dinoe. Izan be, isunik ipintzeko eskumenik izan ez arren, herritarrei jarraitideak emoten deutseez. ■ I.E.

Maiatzeko auzo elkarretaratzera ez eben hutsik egin gerediagatarrek

Meza, Xabier Amurizaren bertsoak eta dantzariak izan ziren Gerediagan joan zen asteburuan. Orain bost urte berreskuratu eben auzoko dantza taldearen emanaldian hartutakoa da beheko irudian jasoa doguna. Gerediagan meza, kantua eta dantzak gozatu ondoren, Durangoko Plateruenean izan eban maiatzeko jaiak jarraipena: auzo-bazkarira batu ziren ehun auzotar inguru, eta trikitilarien doinura dantzan bukatu eben auzotarrek eguna.



IURRETA

Motorzaleen I. Topaketa egingo dabe domekan

Amoiur motozale elkarteak motor ibilaldia ez eze, bazkaria eta rock kontzertua antolatu ditu

Motorzaleek elkartzeko hitzordua jarrita daukie asteburuan, Iurretan. Izan be, Motorzaleen I. Topaketa antolatu dau domekan Amoiur motozale elkarteak. Egun osoko egitaraua osatu dabe.

Tellitu aparkalekuan elkartuko dira hurreratuko diren motozaleak, etzi. Izena emoteko aukera 09:30etik emongo dabe —bakotzak 10 euro ordaindu behar ko ditu—, antolatzaileek jakin

Tellitu aparkalekuan elkartuko dira parte hartuko daben motorzaleak

Izena emoteko epea 09:30ean zabalduko dabe; 11:00etan, barriz, Durangaldean zehar ibilbidea hasiko dabe

eragin dabenez, eta 11:00etan hasiko dabe Durangaldean zehar antolatutako ibilbidea. Bazkaltzeko 14:30ean jarri dabe orduan, eta 18:30ean rock kontzertua hasiko da: Insolentes eta Cronos taldeek joko dabe. Motor erakusketabe antolatu dabe Amoiur elkar-tekoek, eta motozaleendako hainbat opari be egingo ditue zotz. Zozketa 17:30ean hasiko dabe, argitu dabenez.

59an jaiotakoen bazkaria

Bestalde, anaitasun bazkaria antolatu dabe, ekainaren 13rako, 1959an jaiotakoek, 50. urteurrena daukiela-eta. Meza izango da 12:00etan, eta, ondoren, familia argazkia be atarako dabe. Garain egingo dabe bazkaria, 14:30ean. Ibai-Ondo kafetegian emon leikie izena parte hartu gura dabenez, antolatzaileek azaldu dabenez. Horretarako, maiatzaren 30a bitartean dago aukera. ■ A.B.

GARAI

Gerediagagaz hitzarmena sinatu dau Udalak

Joan zen astelehenean bilkura egin eban Garaiko udalbatzar- rarak, eta bertan Gerediaga Elkar-teagaz akordiora heltzea onartu eben. Ondorioz, Udala elkar-tearen bazkide babesle izango da.

Gontzal Sarrigoitia Garaiko alkateak azaldu dauenez, “hartu-emon ona” egon izan da beti Udala eta Durangaldeko elkar-tearen artean, baina orain arte ez da ofiziala izan.

“Hartu-emon ona” egon izan da beti, baina orain arte ez da ofiziala izan

Gerediagak hainbat argitalpen eta dokumentazio eskainiko deutsoz Udalari. Gainera, urtean zehar egiten dituen ekitaldietako bat, gixtienez, Garain ospatuko da.

San Isidro

Herriko nagusiak ospakizunetan murgilduta dagoz gaur, San Isidro Egunaren harira. Meza eta bazkaria izan ditue. ■ M.O.

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

CATALANA OCCIDENTE

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51



NEKAZARITZA KOMERTZIALA

BASERRI TRESNAK

Konponketak eta salmentak:
traktoreak, segamakinak, motozerrak,
motoaitzurak, moztailleak, belarra mozteko makinak,
sasiak garbitzeko makinak...

**prezio
berezia**

HLE F1125
399€...

ALTUERA HANDIKO
HESKAI-MOZTEKOAK

M5121
239€...

M5181
292€...

M5211
369€...

MOTOZERRAK

ELEKTRIKOAK ETA
GASOLINAZKOAK



ES40
189€...

ES50
219€...

GASOLINAZKO
MOTOSEGA ETAK
SASI-GARBITZEKOAK

GASOLINAZKO
BELARRA MOZTEKO
TRAKTOREAK

M113 R1
619€...



M113 R1
3.590€...

GASOLINAZKO
BELARRA MOZTEKO
TRAKTOREAK

HAIZE MAKINAK
XURGAGAILUAK

RG 56
245€...

SH 86 C E
349€...



Eitua industrialdea, 66 BERRIZ • Tel.: 94 682 40 87

ATXONDO

Europako airearen kutsadura neurtzen dauen azterketa

Trafikoak kutsatutako aireak osasunean dituen ondorioak neurtuko ditue, besteak beste

Bizkaiko beste bost herrigaz batera hautatu ditue Atxondo eta Durango Europako aireko kutsadura neurtzeko egiten dabilzen azterketaren laginetako bi izateko; airearen kutsadurak osasunean dituen eraginak neurtzeko. Aireko kutsaduraren Europako mapa osatzea helburu dauen azterketarako datuak Durango eta Atxondon be bilduko ditue, beraz.

Trafikoak eragindako airearen kutsadurak osasunean dituen ondorioak neurtuko ditue

Bizkaian bost herritan egingo ditue neurketak: tartean, Durango eta Atxondon

European Study of Cohorts for Air Pollution Effects (ESCAPE) ikerketa osatzeko baliatuko ditue Durangaldeko herri biotan batzen dabilzen emaitzak.

Uztaila bitartean egingo dabe datuen bilketa-lana, herri biotan ipini ditueen biltzaileen bitartez. Europako beste 20 herrialdetan be egiten dabilz azterketak. Trafikoak airearen kutsaduran daukan eragina eta horrek biztanleen osasunean dituen ondorioak neurtu gura ditue azterketa honeguz.

Herriotako hainbat balkoi eta leihotan ipini ditue neurgailuak, teknikariek hautatu ditueen leku estrategikoetan. 2008an abiatu eben ikerketak lau urteko iraupena izango dau; 2010a arte aireko laginak bilduko ditue, eta analisi epidemiologikoak egingo ditue hurrengo bi urteetan. ■ I.E.



Uztaila arte batuko ditue herri biotan laginak. I.E.

OTXANDIO

Oihartzuna, Txema Olaguen eta Ohiandi kontzertuan

Urtero legez, Udaberriko Kontzertuek abesbatzen doinuekin girotuko dabezapatu arratsaldea. Otxandioko Ohiandi abesbatzaz gaz batera, Muskizko Oihartzuna eta Sondikako Txema Olaguen kantuan izango doguz bihar, arratsaldeko 20:00etan, Santa Marina elizan.

Abesbatzen egitarauan hutsik egin ezin dauen ekitaldi honek 30. aldia dau aurreten. Ohiandi abesbatzak urtero parte hartzen dau, Bizkaiko Abesbatzen Elkartek aukeratutako beste bi taldegaz. Kontzertuak BBKren babesaz jasotzen dau.

Urteurrena

Datorren urtean Ohiandik 40 urte beteko ditu. "Oraindino ez dogu pentsatu ospakizun egingo dogun", azaldu deuskue taldekideek. ■ J.G.

Hiru hamarkada daroez herrian Udaberriko kontzertuak antolatzen

MAÑARIA

Aste Kulturala izango da maiatzaren hirugarrena

Martxoaren 18an abiatuta, hainbat dira maiatzaren 24ko Azoka ailegatu aurrerako antolatu ditueen Aste Kulturalako ekimenak. Argazki lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa izango, astelehenean hasita, frontoian: herritarrek be euren botoa emateko aukera izango dabe irabazleak hautatzeko.

Udaletxeko batzar aretoan, barriz, baserriko tresna zaharren erakusketa izango da. Zapatu honetan Mugarra ehiza elkartek antolatutako plater jaurtiketa txapelketa izango da, Garaitorre jate-txean. Aste Kulturalaren barruan arituko dira, maiatzaren 22an, Bermeo eta Gernikako eta herriko Kirikiño abesbatzak be. ■ I.E.

BERRIZ

Alokairuko etxebizitzaren gaineko araudia gaurkotu eta onartu dabe

Alderdi guztiek baiezko botoa emon eben eguazteneko udalbatzarrean

Udaletxearen eta SUSaren jabetzakoak diren etxebizitzak alokairuan emateko araudi gaurkotua eguazteneko udalbatzarrean onartu eben. Alderdi guztiek aldeko botoa emon eben.

Araudiak nabarmentzekoak diren aldaketa bi ditu. Etxebizitzak nori emon puntukako sistemaren bitartez erabakitzen da: diru-sarrerak, seme-alaba bateko edo gehiagoko familiak, elbarriak... hainbat alderdi hartzen dira kontuan. Horreetako batean, 'Gizarteko egoeralarriak' atalean zera onartu dau udalbatzarrek: tratatu txarrak jasotzen ditueen

Tratu txarrak jasandakoek lehentasuna daukie beste edozein preminaren aurretik

Adiskidetasun hartu-emonak ez zen bizikidetzako unitate legez ikusten; araudi barriak hori aldatu egin dau

emakumeek lehentasuna izatea beste edozein bazterkeria jasaten dabenen gainetik.

Bestalde, orain arte 'Bizikidetzako unitate' atalak batez be familli tradizionala zeukan oinarrian. Puntu batean zehazten eban ez zirela bizikidetzako unitatetzat jotzen adiskidetasun hartu-emonak. Araudi gaurkotuan azken puntu hori kendu dabe; hementik aurrera, adiskidetasun hartu-emonak be aintzat hartuko dira.

SUSaren barruan bost etxebizitza dagoz orain. Udalak be etxebizitza bat dauka eta beste bat erostekotan dabil. ■ J.D.

ZALDIBAR

Interneteko gunea ipini dau martxan Herri Liburutegiak

Irakurle eta erabiltzaileekin hartu-emonetan jartzeko, bazkideei zerbitzuen barri emateko eta era berean euren eritziak jasotzeko asmoz zabaldu dau Herri Liburutegiak bloga Interneten.

Udal Liburutegian antolatzen diren ekitaldiak, etorkizunerako asmoak eta nobedadeak bilduko ditue gune horretan, eta liburutegiari jagokozen proposamenak egiteko aukera izango dabe bazkideek. Tresna hau martxan ipintzeko arrazoietakoa bat da, hain zuzen be, erabiltzaileekin hartu-emon hori sustatzea izan da. Hauxe zabaldu daben helbidea: www.zaldibarkoliburutegia.blogspot.com. ■ I.E.



GALDERA:

Zein da San Trokaz jaietako maskota?

Izena: _____

Tel.: _____

Makatzeta jatetxerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bildu erantzunak: Santa Ana, 6 Durango edo astekaria@anboto.org helbideetara. Hilarren azken alean agertuko da irabazlea.





ELORRIO

Presoen egoera salatzen dauen mozinoa onartu dau udalbatzak

Ezker Abertzalea alde eta PSOE kontra agertu dira; EAJ abstenu egin da



Udalbatzarra jentez beteta egon zen, eskuartean euskal preso politikoen argazkiak zituela.

Frantziaren eta Espainiaren espetxe politika salatzen dauen mozinoa onartu eban udalbatzarrak, martitzenean. Era berean, mozinoak Arkaitz Bellon Algecirasen burutzen dabilen higie grebagaz bat egin eta kondena beteta daukien Anton Lopez eta Jose Felix Zabarte elorriarren askapena eskatzen dau.

Udalbatzarrerara joandako herritar batek Arkaitz Bellonen inguruko testigantza emon eban: “Algecirasera tokialdatu dabene- tik isolatuta dago, eta funtziona- rioen aldetik mehatxuak eta jipoiak jasotzen ditu”, salatu eban. Orain hamar egun higie greba hasi dau eta egoera kezagarria ei da.

EAJ abstenu egin zen, mozi- noak ez dauela pertsona guztien eskubideak bermatzea bilatzen argudiatuz: “Zilegi da kolektibo honentzat laguntza eskatzea, bai- na non dagoz mozinoan agertzen ez diren pertsonen eskubideak? Erailenak, mehatxatuenak...”.

Mari Carmen Muñoz zinego- tzi sozialistak bere ezezko botoa azaldu eban: “Nik eta nik orde- zatzen dodan alderdiak ez dogu horrelako kasuen frogarik. Dena dela, Zuzenbide Estatuan bizi gara eta kasu horreek epaitegietan aztertzeoak dira”. Jose Antonio Alkorta EHako zinegotzia ez zen bilkuran egon, baina mozinoaren alde dagoela jakinarazi eban. ■ J.D.

Arkaitz Bellon presoak higie greba hasi dau, eta egoera kezagarria ei da

EAJ abstenu egin zen mozinoak “ez dauelako pertsona guztien eskubideak bermatzea bilatzen”

IZURTZA

Ekonomia jardueragaitiko zergak egiaztatu beharra

Aurretik kontratazino-mahaiak adostu legez, udalbatzarrerara eroan eban lanaren esleipena

Urteetan herrian euren ekonomia jarduera burutzeagaitik ordaindu behar daben zergaren bilketa behar den moduan ez dela egin eta joe- ra hori aldatzeko beharra ikusi dabela azaldu dau Gobernu Tal- deak. Horregaitik egin ei dau kon- trola eroan daian enkargua enpre- sa bati egiteko proposamena.

Lana esleitu deusien enpre- sa bere lana burutzen uda aurre- tik hasi daitela aurreikusi dabela azaldu eban Iker Ballarin zinego- tziak, udalbatzarraren aurretik.

Zerga-bilketa lana egingo dauen taldearen egitekoa enpre- sen datu ekonomikoak azaleratu eta kuantifikatzea izango dela aurreratu deuskue, eta Udalari aholkularitza eta laguntza tekni- koa emongo deusala be bai.

Bi milioi eurotik gora faktu- ratzen daben eta herrian egoitza daukien enpresetako dokumenta- zinoa biltzeari ekingo deus, beraz, enpresak, eta zenbateko guztiak eguneratuko ditue horre- tara. Enprese buruz Udalak dau- kan informazioa barritzeko hel- buruz jardungo dabe. ■ I.E.

DURANGO

25. urteurrena ospatuko dau egunotan Inurri eskaut taldeak

Inurri eskaut taldea sortu zela 25 urte bete dira aurten, eta hori ospatzeko makina bat ekitaldiz osatutako egitaraua era- tu dabe. Maiatzaren 23a izango da egun handia. Jokoak, baz- karia —izena emoteko hilaren 19a arte— eta erromeria izan- go ditue Landako Gunean. Halan be, horrezaz gainera, hila- ren 18tik 22a arte argazki erakusketa eta Inurriren film laburra izango dira San Agustin kulturgunean; eskoletan be erakutsi- ko dabe. Hilaren 20an boluntariotzari buruzko bideoa eskai- niko dabe, 20:00etan (94 681 55 21 / 607 422 591 / 607 422 593).

Apirileko Feriak berotu eban Landako Gunea asteburuan

Andaluziako musika eta dantzek girotu eban joan zen astebu- ruan Landako erakustazoka. Apirileko FERIA izan eban, Duran- goko Andaluziako zentroak antolatuta. Gosaltzeko, bazkaltze- ko eta dantza egiteko elkartu ziren bertaratutako bisitariak. Sevi- llana lehiaketa eta osagarri flamenkoen desfilea be izan zitueen.



J. Fernandez

ELORRIO

Nikaraguako egoera azaltzen dauen berbaldia egunean

Kainaberak antolatuta, Nikaraguan etxebizitza duinen alde egiten dabilzen lanaren inguruan jardungo dau Inma Escriba- nok egunean, 19:30ean, Iturri kultur etxean. Escribano bolun- tarioa da Mozonte izeneko herrixkan, eta hango biztanleen osa- suna eta bizi-kalitatea hobetzeko lanean dihardu. Ildo horre- tan, etxebizitza duinak eraikitzeo proiektu baten bila dabil, Kainaberaren laguntzagaz.

Hilaren 28an, toki eta ordu berean, Victor Pozas EHUko irakasleak komunikabidei buruz eta eurretan egoten diren interesen inguruan jardungo dau.

ABADIÑO

Mendizale bat hil da Anboton

Domekatik desagertuta zegoen Ortuellako mendizalea hilik topatu eban erreskate taldeak eguaztenean, gailurretik gertu dagoen ertz batean. Ertzaintzaren lehenengo hipotesien arabe- ra, hamabost metroan behera jausi zen 37 urteko gizona.

Gorpua helikopteroz atera behar izan eban, erreskaterako inguru gaxtean zegoen-eta, Jaurilaritzako Herrizaingo Sailak azal- du dauenez. Familiak astelehen goizean salatu eban desager- tzea. Domekan joan zen mendi ibilaldi bat egitera, eta ez zen gehiago etxera bueltatu. Harrezkero, 80 lagun inguruk jardun dabe bere bila, larrialdi zerbitzuetaoek zein bolondresek.

DURANGALDEA



Arg.: Judit Fernandez

SAN MAMES



Arg.: Joseba Derteano

VALENTZIA



Arg.: Iñigo Landaburu

BERBAZ >

Joseba Barandiaran •

- Ekonomialaria.
- Hainbat komunikabidetan dihardu ekonomiaz



“Finantza sektoreak ez du behar besteko kontrol eta araurik izan”

Joseba Barandiaranek krisia izango dau hizpide maiatzaren 19an, 19:30ean, Zaldibarko Udaletxeko aretoan

Krisiaren inguruko berbaldia ematera etorriko da Joseba Barandiaran ekonomialaria Zaldibarrera, datorren martitzenean. Ekonomia eta finantza munduari buruz argi eta garbi berba egingiten dakien legazpiar honek Argia saria jaso berri du komunikabideetan egindako lanarengatik.

Krisia sortzeko arrazoiak zeintzuk izan direla esango zenuke? Krisiaren jatorria finantza sektorean dago. Ez du behar besteko araudirik eta kontrolirik izan. Hori gurean hala izan da, baina askoz okerragoa izan da AEBetan, Islandian, Alemanian edo Erresuma Batuan.

Ekonomialarientzat sasoi latza izango da.

Bai, baina latza benetan zer den jakiteko, lana edo etxea galdu dutenengana joatea egokiagoa da. Behin-behineko lana zutenentzat, hainbat etor-

kinentzat, enpresa txikietako hainbat langilerentzat... horientzat bai sasoi latza.

Euskal Herrian krisiaren sasoi txarra heltzeaz dagoela diote. Bakoitzak ezagutzen du norbere krisiaren punturik txarra. Oro har, baina, Euskal Herrira, batik bat industriara, beranduxeago iritsi da krisia, eta bertatik ateratzeko Espainiako zenbait eskualde baino hobeto egon gaitezke. Higiezinaren mozkorrean gutxiago edan dugulako, batez ere. Baina horrek ez du esan nahi krisi honek aje galanta eragingo ez digunik; automobilgintza eta bere osagaiak lekuko.

Garai hauetan probetxurik aharako duenik ere badago?

Bai, noski. Krisiak ez digu guztioi berdin eragiten. Zorpetuei interes zama arintzen ari zaie, lana mantentzen badute bederen. Zorrak ez dituenak ere, lasaia dago. Arropa, auto edo etxe konponketetan dabil-

tzanak hobe moldatuko dira saltzaileak baino. Gasolina merkatu egin da, eta alokairuan bizi denak sekula baino aukera gehiago izan dezake.

Egoera honi zer irtenbide ikusten diozu?

Mailegu gutxiago eta kontrolatuagoak dituen ekonomia bat. Ekologikoki eramangarriagoa eta kontsumo apalagoa; hazkundera baino, ongizatea eta errentaren banaketa orekatuagoa beharko luke. Zer hobetu asko dago, hasi gure erakundearen egituratik eta higiezinaren inguruan bizi izan dugun gezurreraino. Apalagoak izan behar dugu; ez gara ez munduko zilborra ez munduko aberatsenak. Sormen, berrikuntza eta ikerketan indartu beharko dugu. Finean, politikak du gakoa.

Beste ekonomia eredu bat posible dela deritzozu?

Beti da posible. Eredu bakarra gezurra da. Nabardurak eta

aldeak handiak dira munduan, herrialdetik herrialdera. Ameriketako Estatu Batuak, Alemania, Norvegia eta Txinak, kasu, ekonomia eredu bakarra dutela esan ote daiteke? Gure ereduak iraun al lezake beste 200 urtez?

Orain arte izan dugun adreiluaren kulturak porrot egin al du?

Erabat, eta, esango nuke, zorionez. Gizarte batek gazteei bakar-ka edo bikoteka bizitzeko aukera duina eskaini behar die. Etxe horiek gazteentzat eskuragarri izan behar dute. Eta babes ofizialeko etxeen zozketa bada gure gazteen amets nagusia, bazterra joa dugu. Udalek duten ideia burutsuena lur hau edo hura birkalifikatzen jardutea bada, beste horrenbeste.

Krisiaren inguruko hitzaldiak ematen diharduzu. Bertaratzen direnek zer galdetzen dizute?

Krisia noiz bukatuko den galdetzen didate beti. Neuk baneki! Anbotoko Mariri galdetu behar.

■ Jone Guenetxea

“Mailegu kontrolatuagoak dituen ekonomia bat behar dugu”

“Beste eredu ekonomiko bat posible da, baina eredu bakarra gezurra da”

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Greba orokorrak hainbat atxikimendu batu dau

Maiatzaren 21erako deialdiagaz bat egitera deitu ditue sindikatuek herritarrek

Durangeldea krisiak gogor jotzen diharduen eskualdea dela berretsi dabe ELA, LAB eta ESK sindikatuek; Euskal Herriko ingururik kaltetuenetarikoa da. Horrexegaitik, “inon baino gehiago arrakastatsua” izan behar dau eurekin batera EHNE, HIRU eta ESTEE-EILAS sindikatuek bemaia-tzaren 21erako deitutako greba orokorrak. Parte hartzera deitu ditue herritarrek.

“Kaleratzeak, enplegu-erregulazio espedienteak, patronalaren hainbat txantaia... egunero-koak dira, eta egoera dramatikoak da”, sindikatuek nabarmendu dabenez, eta “horren aurrean administrazio edo agintariek ez daukie erantzunik, guztion zerge-

2008ko otsailetik 2009ko otsailera langabezia “gitxienez bibidertu” egin dela dinoe sindikatuek

Durangeldea krisiak gogor jo dauela eta “inon baino gehiago grebak arrakasta” eduki behar dauela dinoe

tatik banketxe eta enpresei dirua emotea ez bada”. 2008ko otsailetik 2009ko otsailera langabezia “gitxienez bibidertu” egin ei da.

Enpresa nagusietako komiteak atxikitu dira: Agria Hispania, Amilibia y De La Iglesia, Mendi-guren y Zarrua CIE Egaña, CIE Inyectametal, Camelot, Fuchosa, Ona Electroerosión, Mecanizados Iketz, Jesus Oñate Hermanos, Bruss, Estampaciones Bizkaia, Fundiciones San Eloy, Teknia Elix, Corus Layde, Mugape eta Industrias Alga, besteak beste; baita Smurfit Nerviñ, Envases Vascongados, Cafés Baqué eta Sabecok (Durango) be. Durango, Iurreta, Berriz, Zaldibar eta Elorrioko udal-letxeetako komiteak be bai. ■ A.B.

> BERRIZ

Hiltegi barria altxatzen uda eta gero hasi gura dau Erraldek

Jaurilaritza eta Aldundiaren baimenak eskuratuta, hamar egun barru hasiko ditue hiltegi barri-rako lur mogimenduak; eraiki-na altxatzen uda ostean hasi gura dabe, eta 2010eko gabonetarako amaitu; 12 milioi erabiliko ditue. EHNE-Bizkaiak eta Erraldek adierazo dabenez, piezaka-tze areto propioak izango ditu hil-tegi barriak; horren diseinu eta ezaugarriak gaur azalduko ditue Kultur Etxean, 11:30ean. Gero, Bizkaiko Bildotsak erreko ditue.

7.300 behiburu hil zitueen igaz; aurtengo kanpainan 5.000 bildots hilko ditue

Erraldek 2.220 abeltzaini eta 300 harategi baino gehiagori emoten deutso zerbitzua. Urte biotan ibilbide “oso emankorra” izan ei dau. Igaz 7.300 behiburu hil zitueen (%87 Bizkaikoak eta %97 Euskal Herrikoak) eta aurtengo kanpainan 5.000 bildots hilko ditue: “Baserritarrentzat prezio duinak, abelburuen kalitatea eta faenadu tradizionala dira gakoak”.

■ kolaborazioa



Augusto Uriarte Behargintza

Nik badaukat izar bat

Epaile izateak ez nau liluratzten, baina asteen enpresa-proiektu berrien lehiaketa bateko kalifikazio-epaimahai bateko kide izatea egokitu zait, eta gustuko izan dut.

Ezer ez doala ondo eta dena kaos bat dela dirudien garaiotan, gozamina da arrakastatsua izan daitezkeela aurreikusten den negozio-ideiak aztertzea. Gustuko izan dut eurak kalifikatzea ilusioz blaituriko proiektuak direlako, elementu berritzaileak josiak eta ezagutzaz beteak butzatzaileen aldetik.

Haietako batzuek bioteknologiaz dihardute (birsorkuntza medikuntza), beste batek ureko eta/edo ardoko aplikazio-teknologiaz. Haietako batean helikoptero ultrarin bat eraikitzea dute helburu. Erreka eta itsasoan azaleko geruzaren garbiketa da beste baten egitekoa. Gaitasun tekniko txundigarritz ekiten dio beste batek soinu-sorkuntza berriari.

Zer ona den jakitea gure inguruan ekintzaileak badaudela oraindik

Guztiak batzen dituen, hasierako fasean egoteaz gain, finantzazio beharra da. Ekimenarekin aurrera egiten lagunduko dion izarrarren zain daude denak, euren helburua lortzeko. Oso litekeena da guztiak errentagarriak izatea epe laburrean, baina kanpoko inbertsioa behar dute dakitena egin ahal izateko: ekoizti eta fabrikatu.

Zer ona den jakitea gure inguruan pertsona ekintzaileak badaudela oraindik, ilusio bati jarraituz eurentzako zein ingurukoentzako lana sortzeko gai direnak. Bizitza korapilatzeako prest daudenak gauza berriak sustatzeagatik.

Talde horietako batek lehiaketa irabazi du, eta sari on batekin aintzatetsia izango da. Gainerakoek onarpen-aipu zintzoa jaso dute, eta oztopoak gainditzten lagunduko dien sozio inbertsore horren zain geratu dira.

Haiek zeruari begira zain jarraituko dute, behar dutenaren ertz guztietara egokituko den izarraren bila. Nahi nuke zortea izan dezaten, nik izan dudana legez.

> DURANGO

Langileak mobilizatzera deitu ditue sindikatuek

ELAk manifestazinoa deitu dau, eta UGT-Euskadik asanblada egin dau

Durangeldea Euskal Herrian krisia “gehien” sufritzen dauen eskualdea dela gogorarazto dau ELA sindikatuak, eta “patronalak, bankuek eta botere publikoek sortutako krisiaren ondorioak langilegoari eta gizarte zibilari leporatzen” deuseezela. Egoera hori salatzeako manifestazinoa egin dau Durangon sindikatuak, “mobilizatzea, borrokatzea eta kalea irabaztea” eritza “egungo politikak eta eredu kapitalista aldatzeko” modua. ELAko idazkari nagusi den Adolfo Muñozek be parte hartu eban ekitaldian.

UGT-Euskadiko idazkari nagusi Damaso Casadok be nabarmendu dau “kapitalismo espekulatiboak sortutako krisi ekonomiko-finantzieroa” erabili dabela enpresek langileak kalera-tertzeko, eta egoera horri aurre egin behar jakola. Horren aurrean,

ELAk maiatzaren 21eko greba orokorrean parte hartzera deitu dau

UGT-Euskadik “zentzurik eta logikarik bakoa” deritzo 21eko grebari



“gizarte elkarriketa sortzeari ezinbestekoa” deritzo. Gehiengoaren akordio barik enplegu-erregulazio espedienterik ez onartzea eskatu dau: “Izan be, eskualdean hainbat dihardue aurkezten eta onartzen akordio barik”. Langileen eskubideak eta babes soziala sustatu behar direla gogoratu dau.

Greba orokorra

ELAk maiatzaren 21erako greba orokorra bultzatu dauen heinean, UGT-Euskadik horrek “logikarik ez zentzurik” ez daukala dino: “Ez dago proposamen argirik eta langileen kontrakoa eta enpresarien aldekoa da”. ■ A.B.



ELAk manifestazinoa egin dau; UGT-Euskadik asanblada.

KULTURA[>]

PINTURA > ERAKUSKETA

Fernando de Vicente Joskurak

Zornotzako Udalak antolatutako erakusketa da orriotara dakarguna; maiatzaren 4tik hil bukaera arte, Zelaieta Zentroan dago ikusgai. Beitu Art Gallery-ko kudeatzaile den Fernando de Vicenteren 20 koadro inguru dira erakusketarako bildu dituztenak. Asteazkenean 08:00etatik 22:00etara, eta asteburuetan 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara bitartean izango dira lanak ikusgai.

Joskurak izeneko bilduman, serigrafia-tinta zein disolbentearekin eta argazkiekin fondoak osatuta egindako koadroak bildu dituzte. Berrizko tailerrean azken hiletan osatu ditu Fernando De Vicentek lanok; koadro aurrean

jesarri eta esperimentazioaren bitartez lortutako emaitzak.

Aurreikuspenik barik egindako koadroak direla dio egileak, "sentitzeko ariketak egitetik sortutakoak"; sentsazioek gidatuak. "Sukaldean gabiltzanean, armairuan eta hozkailuan dauzkagun osagaiekin –eskura ditugun ogi, patata eta limoiekin– sukaldatzean bezala egindakoak" ei dira.

Artistaren jenialitatean eta autorearen lanaren bakartasunean ez duela sinesten esan digu Fernandok, eta horregatik erakusten ditu lantzen dituen teknikak, asteazkenean, Ezkurdin. Beharbada horregatik konpartitzen ditu bere marrazteko teknika eta usteak asteazkenean birritan ikasleekin. ■ I.E.

12 > Historia Jardunaldien hamarkada

X. edizioa abiatu dute atzo Durangoko Arte eta Historia Museoko Historia Jardunaldiek. XX. mendeari buruzko hiru hitzaldi izango dira.



13 > Rock terapia: Lor-en berria

Hendaiako Kanttu tabernan gaur eta maiatzaren 22an Plateruenean aurkeztuko dituzte hiru elorriarrek *Rock terapia* disko berriko kantak.

HISTORIA> JARDUNALDIK

XX. mendeko historia hurbilari buruzko hiru hitzaldi Museoan

Gertakari historikoak eta prozesu historikoak landuko dituzte egunotan

Gerediaga elkarteko Jon Irazabal historialaria izan zen atzo *Durango y la Guerra Civil* (1936-1939) izeneko berbaldiarekin 2009ko Historia Jardunaldiak hasi zituen. Bukatu berri den XX. mendea da Historia Jardunaldien hamargarren edizioan landuko duten garaia.

Egungo gizartea ulertzeko gako nagusienetarikoa historia-ren zati horretan daudela uste dute jardunaldiak antolatzen dituzten lagunek. Gerra Zibilak eskualdean utzitako ondorioak ardatz izan dituen berbaldiarekin abiatu dira jardunaldiak, eta Durango eta Durangaldearen historia hurbila gerturatuko digute.



Hasiera batean maiatzaren 21erako aurreikusita zegoen hitzaldia, greba orokordealdia dela eta, ekainaren 4ra igaro dute; 19:30ean Durangoko Museoan da zita. Atzo abiatutakoaren ondoren, maiatzaren 28an da *Durangaldeko iragan hurbilari begirada bat irudien bidez* (1960-1991), Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta Gerediagako lehendakaria den Nerea Mujika hizlari izango duena.

Tesiaren sintesia

Nerea Mujikak doktoretza-tesi sakona landu du, 60 eta 91 urteen arteko Durangaldearen bilakaerari buruzko aldaketa sozio-ekonomiko, politiko eta demografikoak oinarri hartuz. Doktoretza-tesian landutakoaren sintesia egingo du irakasleak hitzaldian.

Historia jardunaldietako zuzendari teknikoa den Belen Bengoetxeak aurkezpenean azpimarratu duenez, atzoko berbaldian kasu, gertakari historikoak jasoko dituzte jardunaldietan (Durangoko bonbardaketa landu zuten atzo), baina Historia jardunaldien izateko arrazoa prozesu historioak aztertzea omen da.

Horrela, prozesu historiko horien "marko urbanoa ulertzeko" antolatu dute, Bengoetxeak azaldu duenez, ekainaren 4ko berbaldia: *De la ciudad tradicional a*

la urbe industrial. Arquitectura en Durango en el siglo XX. 19:30etik aurrera izango da berbaldia. Hiri-gunea eta bertako eraikuntzak modernizatzeko prozesua izango du mintzagai EHUko Artearen Historia eta Musika Saileko irakasle den Maria Jesus Pachok.

Hamar ediziotako hamaika hitzaldiren bilduma osatu eta ekain inguruan liburua argitaratu asmo dutela azaldu du aurkezpenean Mari Jose Balier Durangoko Udaleko ordezkariak. ■ I.E.

Bere doktoretza-tesiari buruz arituko da Nerea Mujika maiatzaren 28an

11 hitzaldi jasotzen dituen liburua argitaratugura dute antolatzaileek

Ekainaren 4an egingo dute maiatzaren 21erako aurreikusita zegoen hitzaldia

GEURE DURANGALDEA



Non dago %1a?

Jon Irazabal
Gerediagako kidea

1985. urtean onartu zuen Madrilgo gobernuak Espainiako Kultur Ondarearen Legea. Lege horren barnean aipatzen da estatuak egindako obrek 100 milioitik gorako aurrekontua dutenean %1 kultur arloa bideratu behar dela. Espainiako Gobernuak Sustapen Ministerioak diru kopuru hori kultur ondareak berreskuratzeko, handitzeko edo sorkuntza bultzatzeko erabili behar du. Interneten buelta bat emanez gero, hainbat autonomia elkarrek diru-atal hori nola jasotzen duten ikusi ahal da, eta, nire galdera da: Euskadin non dago %1 hori?

Azken hileetan gure mendietara begiratu gero, hainbat tokitan ikusten ditugu Abiadura Handiko Trenaren lanak sortutako aldaketak. Ez naiz sartuko tren horri buruz eztabaidatzen; badut nire iritzia pertsonala, baina gaurko zutabea ez da tokia horri buruz hitz egiteko.

Nahi dudana da tren horren alde apustua egin duten gure agintariei galdera bat egitea: badakizue nora joango den obra horretako %1a? Agintari gehienek, zoritxarrez, lege eta obligazio hori dagoenik ere ez dakite.

Iurretatik Elorriorako lanen hasierako aurrekontua 280.548.144 eurokoa dela ikusirik, ez gabiltza lau txanponi buruz hitz egiten; 3 milioi eurotik gorako kopuru bati buruz baizik. Durangarrok trenak pasatzen ikustearekin konformatu beharko dugu ez duelako gure eskualdean geltokirik. Diruak ere bai?

Badugu Durangaldean non gastatu diru horiek, eta ondorioz ez litzateke txarto egongo gure herri agintariei Sustapen Ministerioak non eta zertarako erabiliko dituen euro horiek galdetzea, eta hona etortzeko borrokatzea.

1986an Francisco de Goya margolariaren *La Marquesa de Santa Cruz* margoa erosi zuten eta Madrilgo El Prado museoan jarri. Orain ere berdin gertatuko da? Trena pasatzen ikustearekin konformatu beharko dugu? Txanpon horiekin berreskuratutako ondareak ikusteko bidaiatu egin beharko dugu Bilbo edo Madrilera?

LEHIAKETA> SARI BANAKETAK

Gazteen antzerki eta literatur sariak San Agustinen eta Iurretan

Iurretako VI. Literatur Lehiaketaren sari-banaketa egin zuten joan zen barikuan. Epaimahaiak eskainitako sariak jaso zituzten Lehen Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan ikasten duten gazteek zein parte-hartzaile helduek. 2003an martxan ipini zutenetik ediziorik arrakastatsuena izan da aurtengo lehiaketa: 274 lagunek aurkeztu dituzte euren bertso eta ipuinak Iurretako Ibarretxe kultur etxean. Batez ere, helduen sailean nabarmendu dela parte-hartzearen gehikuntza azaldu dute antolatzaileek, eta Euskal Herrikan kanpoko jendeak ere bidali dituela lanak lehiaketara.

Bigarren 'Zugan Ni' sari banaketa

Eskuinean agertzen dena, barikuan Durangoko San Agustineko oholtzan gazteen antzerki lehiaketaren sari-banaketa egin zuteneko unea da. Durangoko Jesuitak Ikastetxeak *Ez direnak* obrarekin eta Zornotzako Zelaieta taldeak *Rigor Mortis* lana-rekin irabazi dituzte Markeliñek antolatutako lehiaketaren bigarren edizioko Baqué eta Zarate-Elexpe sariak. Gazteak antzerkiaren mundura gerturatzea helburu duen egitasmoan parte hartu dutenetatik talde bat ere ez zen sariketan aipamenik barik geratu. Sei hilabetetan egin duten lanaren sariak jaso zituzten ekitaldian. ■ I.E.



J. Fernandez

deko09



 anboto



KOART 2013

Sukaldeak • Bainugelak • Horma-armairuak

Tel. / Faxe: 94 682 68 79
Eitua industrialdea, 9 - 6 behea
48240 BERRIZ





Sentsazino barrien bila

Dotorezia eta erosotasuna nagusi

Agian ez dira garai onenak izango etxe barria erosi eta hori atontzen hasteko, gure bizilekuari dekorazino barria emon- teko edo etxea bera birmoldatzeko. Halan be, aldaketa gitxi batzuekin, posi- ble da izaera barria emotea bizilekuari. Horreek eta bestelako aholku batzuk be aurkitu ahal izango dozuez gehigarri honetan.

Berrantolaketa eta koloreak

Hasiera errazena izan leiteke gelak berrantolatzeari ekitea; adibidez, altza- riak eta koadroak tokiz aldatuz. Onena inguru garbia lortzen ahalegintzea da, zabaltasun sentsazinoa eragiten dau- eta.

Koloreek be helburu hau betetzeko beste horrenbeste lagundu leikie.

Orain arte, arreta guztia itxuraren- gan jarri badogu be, ez da ahaztu behar ez garela edertasunari begira bakarrik

bizi; erabilgarritasunari eta erosotasuna- ri be erreparatu beharko deutsegu.

Beraz, aitatutako guztia eta bestela- ko zenbait ideia barritzaile be aurkitu ahal izango dozue dekorazinoari buruzko gehigarri honetan.

Datozen orrialdeetan, irudietan era- kutsiko deusuegu 2009 honetarako etxeko txoko bakoitzeko dekorazinoa egiten lagungarri suertatuko jatzuela itxaroten doguna. Irudiez gainera, aur- tengo dekorazinoan tendentzia nagusiak direnak azalduko doguz, ideia barriak emon guran beti be.

Etxeko hormetako kolorea edo loge- la, bainugela eta beste espazioetako dekorazinoari buruzko gomendioak jaso- ko doguz, beraz, gehigarri honetako orrialdeetan, aldaketarako gogoia dau- kienek baliagarri izango daben informa- zinoa helarazteko. Hala ere, norberaren gustuak jarraituz beti asmatuko dogu.



Aholkuak aholku, erabilgarritasuna eta erosotasuna dira dekorazino kontuetan erabakiak hartzeko oinarri

Arriluzea 3 Tabira Durango - 946202626
www.pizeli.com

Pizeli



Xabier Zelaia



Horma guztiak kolorez jantzita

Bizitasuna kolore neutroekin uztartuz, egonkortasuna helburu



Noizbehinka gure etxeko logelaren bat kolore sutsuekin margotu gura izaten dogu, baina, ez gara ausartzen erabaki arriskutsu bat izan leitekela. Halan be, ukazina da koloreak eragin emozionala daukala gure bizitzan, horregaitik, batzuetan pena merezi izaten dau arrisku hori hartzeak.

2009. urte honetan kolore sutsuak modan egongo dira, beharbada sasoi laiotz honeei argi printza bat emoteko, bereziki efektu baikorra eta lasaitasuna iradokitzen dauen hori kolorea.

Antzeko arrazoiak direla medio, baleiteke ukitu berdedun limoi horia be erabiltzea aurtan. Modu horretara, giro zalantzakor batean bero sentsazioa eta erosotasuna zabalduz.

Gainera, arrosa, berde leuna, gris neutrala eta marroi kolorez margotutako hormak be



Kontrasteak

Egokiena aipatutako kolore horreek beste kolore neutro –zuria edo grisa– batzuekin nahastea da. Modan dagoen beste kolore bat gris hiritarra da, eta kolore metaliko batzuk be indarra hartzen dabilz –kobrea eta zilarra–.



ikusi ahal izango dira. Kontutan izan behar-koa da kolore horreek etxeko gune edo hormaren batean baino ez direla emon behar, azalera handian emonez gero efektu aztoratzailea izan leikie-eta.

Altzariak Dekorazioa

maderlan

Bilbo etor. 9 behea • 48250 Zaldibar • Tel.: 946 22 50 74 • maderlan@orange.es



Gazte eta helduendako aukera zabala

Azken urteetako joera jarraituz, estilo minimalista da nagusi aurtengo joeretan. Larregi bete bako logelek lasaitasunerako eta erlaxazinarako aukera ezin hobe eskaintzen dabe, sarri askotan hormatan eta altzarietan erabilitako kolorea izanik gelen arteko desberdintasuna eragiten dauen faktorea.

reak aitaturik, zehaztekoa da ohe-jantziak zein hormak antzeko kolorez lagundurik aurkituko doguzela. Koloreen artean, marroia, horia, urrea eta laranja tonu leuneko koloreak dira nagusi, gelaren berezko lasaitasuna areagotuz. Halan be, zuriak sekula ez deusku hutsik egingo, eta zuria erabiliz be gela benetan dotorea lortu leiteke. Adibidez, erabateko zuritasunez estalitako logelek ez leu-

Logela modernoak


Karga handirik bako logelak dira estilo modernokoak. Ohea, gaur-mahaia eta armairua bakarrik dira logela asko eta askotan aurkitu leitezkeen altzariak.

Oheei jagokenez, ohe baxuak direla esan leiteke, garaiera txikikoak. Bestalde, edredoiak lauak dira; marrazkirik bakoak. Baina, irudi falta hori koloreek ordezkutzen dabe, logelari bizitasuna eskainiz. Eta kolo-

Estilo modernoko logelek ez dabe altzari handirik eroaten, ohea, gaur-mahaia eta armairua besterik ez



SOLOZABAL
DEKORAZIOA
URARKA, 14-15 • 94 682 03 92 • ELORRIO (BIZKAIA)





muebles
altzariak

Unai Azpitarte Amala Elguea

UNZUETA

Etxe osoa janzten dizugu!





kie inor ikaratu behar, azkeneko moda-joeretan noizbehinka ikusten den estilo-etakoa izanik.

Horreez gainera, higituaz zabaltzen diren tamaina handiko armairuez, zoruaren zati bat estaltzen daberen alfombrez, besaulki batez edo biz eta gela bakotxeko zutikako lanpara batez osatzen dira logela modernoak, batik bat.

Azkenik, oheen estiloaren antzera, gau-mahaiak be baxuak dira, eta garrantzitsua da bertan aurkituko doguzen lanparek argi leuna igortzea.

Logelak be gazte

Nerabezaroa gure bizitzako garai berezia da, eta bizitzako etapa horretan gustu fin bezain bitxia izaten dabe gazteek. Baina normala da hori, normala den moduan berezitasun horreek euren logeletara be eroan gura izatea. Horregaitik, nerabe baten logelaren altzariak sinpleak, erabilgarriak eta, ezaugarri guztien

Larregi bete bako logelek lasaitasunerako aukera ezin hobea eskaintzen dabe

artean garrantzitsuena dena, gogorrak izan behar dira.

Dekorazinoari jagokonez, etxeko esparrurik aldakorrena umeen logelak dira; batik bat, haurraren lehenbiziko urteetan, nahiz eta adin jakin batera heldzean aldaketa kopurua be murrizten doan. Umetxotan, logelak tonu leun ez atondu behar dira, etxeko txikia lasai egon daiten lortzeko.

Dekorazinoari jagokonez, etxeko esparrurik aldakorrenak umeen logelak izaten dira

Minimalismoa oinarri, lasaitasunez lo egiteko



ALKI decoración de interiores

mikeldi 6, 48200 Durango
Tel: 94 681 38 95

Egongela erosoak



Etxeko edozein gela atontzerako orduan garrantzitsuena dekorazioa gure bizi-estiloari, gurariei eta beharrei egokitzea da. Hori dela-eta, maiz, tradizioa albo batera iztea komeni da, eguneko bizitza atsegingarriagoa egingo deuskuen objektuen mesedetan.

Beraz, gure egongela lantzeko orduan dotorea ez eze, erosotasuna be lortu beharreko ezaugarria da. Horretarako, aproposak dira balio askotako altzariak, egongelarik txikienari be erabilgarritasunik handiena ataratzen deusielako. Mota horretako altzariak dira, esaterako, kutxa, kutxatzar eta bizkarrik bako eserlekuak; guztiek be, barruan edukiera izanik.

Manpara tolesgarria, apalategia edo gurpildun mahai bat moduko elementu mugikorrak oso baliagarriak dira momentuko beharrianetara egokitutako erabilera askoko eremuak itxuratze-ko. Era berean, hutsunea daukien erdiko mahaiek –kutxa estilokoak zein estalkidunak– bikainak dira, adibidez, aldizkariak, dvdak zein cdak bilatzeko. Beharrian aldakorrei egokitzen jaken beste aukera bat barietate ugari-ko osaketak posible egiten ditueen sofa modularrak dira; pufek be badaukie euren lekua.



Gurpildun mahaiak eta altzari tolesgarriak, egongela txikietan espazioa aprobetxatzeko tresna

Elementu mugikorrekin
unean uneko
beharrianetara
moldatzeko aukera
eskaintzen dabe

gandarias

ALTZARIAK

Ermodo Kalea, Ermodo Kalea 15 eta 25

Arkotxa Kalea 13

Tel.: 94 681 07 22

48200 Durango • Bizkaia



Funtzionaltasuna nagusi

Jangela lantzerakoan be, kontutan hartu behar da berorren tamaina; horren arabera, baliabide bat edo beste erabiliko dogulako atontzerako orduan.

Jorratu behar dogun jangelak metro gitxi badaukaz, mahai borobil zabalgarria da aukerarik onena; horrela, leku gitxiago betetzen dau eta, ertzik ez edukitzera, jatun gehiago sartzen dira bertan.

Jangelak handiak diren kasuetan, barriz, mahai angeluzuzena edo obalatu litzateke aukerarik egokiena, besodun aulkiak lagungarri izanik, horreek dira-eta erosoena. Ontzitegi baxu bat be jarri leiteke baxera antolatzeke, eta ispilu, alfonbra edo koadro aproposak estiloa eta berotasuna gehitu leikioe jangelari.

Jangela txikietan mahai borobil zabalgarriak, eta handietan angeluluzeak

Estiloa eta itxura egokiaz gainera, erabilgarrigarritasuna jangelan



BoConcept

studio²



Amorebieta. Montorra auzunea z/g

Tfno. 94 630 13 96 Fax. 94 673 38 30

e-mail: amorebieta@boconcept.es

Bainugelak atsededen leku aro berrietan



XXI. mendeko lehen hamarkadak ia alde egin deuskun honetan, jada ez da derri-gorrezkoa gure bainugelako hormetan betiko azulejoak jartzea, ezta kolore zuria nagusitzea be.

Gaur egungo bainugelak, esaterako, bainuontzi eta hidromasaje-dutxekin, ur-jarioaren eta tenperaturaren kontrola daren txorrotekin eta diseinuzko dutxa-itxiturekin osatzen dira. Gainera, ohiko azuleju eta haltzurdinez gainera, estaldura zeramikoak, kuartzo trinkoak eta hormen eta zoruaren bestelako estaltzeak be agertzen dira 2009. urtean. Horreekin batera, altzairu herdoilgaitza sarri ikusi ahal izango da gehigarrien osaketan.

Azken finean, etxeko beste edozein esparruren pareko garrantzia bereganatu dau bainugelak, eta, beraz, barrikuntza, teknologia zein diseinua zaindu beharreko atalak dira gure etxeko bainugela eraikitze edo barritzeko orduan, norberaren bizitza-ereduari moldatutako irtenbideak bilatuz.

Garbitasuna eta lasaitasuna elkarren eskutik doaz

Dutxen arloan be, punta-puntako diseinuak aurkitu geinkez merkatuan. Dutxen sorkuntza eta teknologia batu egin dira, eguneko neke guztien ondoren plazerezko momentua eskaintzeko. Azkenengo joerek halan erakusten dabe.

Komunetako horma zuriek beste kolore batzuei lekua itzi deusee.

Ur-jarioa kontrolatzen daben dutxek arrakasta handia daukie

Teknologia barru bainugeletara



oiz

M.Z.O. ITURGINTZA GASA BEROGAILUAK ERAIKUNTZA S.L.

SANEAMENDU, LOZA, GASA, BEROGAILUAK, BAINUGELARAKO ALTZARIAK

Biltegia:
UAI Industriagunea, 2 C - 48215 IURRETA
Tel.: 946 816 051 • Faxe: 946 818 545

Erakusketa-Denda:
Plateruen Plaza, z/g. - 48200 DURANGO
Tel.: 946 810 693 • Faxe: 946 818 545

Bainugela norberaren bizitzara egokitu behar da

Greziarrek eta erromatarrek ezagutzen eben jadanik uraren eta baporearen ahalmen sendagarria, eta hidroterapia erabiltzen eben buru zein gorputzaren gozamenerako. Gaur egun, horren zabala da merkatuan aurkitu leiteken eskaintza ze edonork disfrutatu leiken bere etxean, adibidez, benetako spa bategaz.

Bainuontzien barietatea edozelako eremuetara egokitzen da. Halan be, modelorik ohikoenek 170 eta 185 zentimetroko luzera daukie, txokorako bainuontziek, borobilek edo igerileku estilo-koek geroago eta garrantzia handiago hartzen dabilzen arren. Azken horreek eragozpenik izatekotan, espazio handiagoa behar dabela da, 150 x 200 zentimetroko egitura daukielako.

Dutxok burdinurtuzkoak edo altzairuzkoak izan leitekez, gehienak akrilikoak izaten diren arren; arinagoak eta mantentzeko errazagoak. Bainugela txikia bada, hobe da dutxaontzi bat jaretzea. Dutxa hori eroso izan daiten, gitxienez 80 zentimetro neurtu behar ditu alboetan. Bestela, bainugelari ondoren jagokon forma aukeratu behar da: laukia, hexagonala, ertza osatzen dauena edo angeluzuzena.



Hidromasajedun bainuontziak

Metakrilatoz edo beirazko zuntzez egiten dira gaur egungo hidromasajerako bainuontziak, eta edozein txokotara egokitzen dira edonork spa bategaz gozatu daian etxetik irten barik. Bainuontziok, norabidetu leitekezen pitak edo jetak daukiez txertatuta, eurentatik uragaz bat egiterakotan erlaxatu egiten dauena urez eta presinodun airez osatutako nahaste bat botatzen dabenak.

Sofistikatuenean ultrasoinuen bitartez funtzionatzen dabe. Modelurik osatuenek, barriz, panel digital bat izaten dabe, bakotxak gura dauen masaje modua aukeratu daian. Eta horrez gainera, bestelako erabilera batzuk be izaten ditue, kromoterapia, lurrinterapia edo musikoterapia, beste hainbaten artean. Aintzat hartzekoa da, baina, horrelako tresna batek behar den moduan funtzionatu daian etxeko ur emaria minutuko hamar litrotik gorakoa izan behar dela.

Hidromasaje kabina

Hidromasaje kabinak aurrefabrikatutako dutxa baten estilokoak dira, dutxaontziagaz eta manparagaz. Txorrotadun zutabea eta presinopean irteten den ura jaurtitzen daben hainbat jet daukaz. Hidromasajerik osatuenek benetako hidrosaunen antza daukie, eskoziar dutxagaz, baperezko bainuagaz, kromoterapiagaz edo lurrinterapiagaz, eta telefonoa edo irratia lako osagarriekin.



urtiaga
gremioen koordinazioa

Solaguren kalea 3
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
E-mail: urtiaga.sl@terra.es
MATIENA
ABADIÑO

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AXULEI, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA





Diseinuzko sukaldeak

Erabilgarritasuna eta dotorezia

Gure etxeetako ezkaratzak etenik bako eraldaketan dagoz, ezkaratzaren itxura eta teknologia, sorkuntza, estilo barriak eta aurre-
rapen teknikoak agertzen diren neurrian barritzen dira-eta. Adibidez, aurten, zura, altzairua eta aluminioa dira abangoardiazko sukaldeetan erabiltzen diren materialetako batzuk.

Ezkaratz garaikideetan falta ezin den beste aurrerakuntzetako bat bloke-funtzino sistema da. Egitura horreek hainbat funtzino banatzea ahalbidetzen dabe eta sukalde beharizanaren arabera antolatzea, altzarien ordenamendu tradizionala errespetatu barik.

Horrela, besteak beste, egosketarako gune bat aurkitzen dogu, beste bat garbiketarako, sikatzeko, gordetzeko zein elikagaien prestaketarako. Aitatutako esparruen banaketa hori diseinu indartsuko elementuen kokapenagaz lortzen da; horretarako, altzairuzko, aluminiozko edo zurezko edukiontzia baliatuz.

Barria da modulu horreen itxura be, gaur egun hainbat garaieratako hankez osatutako egiturak aurkitu leitekezelako, altzairuzkoak zein aluminiozkoak, gurrpil gaineko moduluekin batera. Horrela, elementu horreek irristatu, egokitu edo biratu egin leitekez, argi itziz ezkaratzen diseinuan

mugikortasunak eta beharizanetara egokitzek daukan garrantzia.

Altzairu herdoilgaitzaren ageriko presentziak, ate lisoek eta lerro bakuneko diseinuek gure sukaldeei sukalde etxekoi eta tradizionalen itxura emotetik urrin, ezkaratz profesional eta gastronomikoen antza izatea ekarriko deutsee. Lanabesen biltegitazeari errendimendu handiena emotera bideratuta dagoen armairu handiak modan jarri dira.

Harmonia helburu

Ezkaratza atontzeko orduan kontuan hartu beharreko gairik garrantzitsuena diseinu sistema koordinatua lortzea da. Hainbat osagarri eta apaindura erabiliz lortu leiteke hori, kolore, diseinu eta motibo jakinak aukeratuz; beti be, kontutan izanik elkarren arteko koherentzia lortzea dela azken helburua. Zeregin horretan arrakasta izan daigun, ezkaratzerako dogun proposamen estetiko eta etxearen gainerako estiloa koordinatuko dituen gai bat aukeratzea beharrezkoa izango da.

Izaera harmoniko hori lortzeko aproposa izan leiteke eredu edo kolore jakin batzuk behin eta berriro errepikatzea.

Altzari-kokapen
tradizionalak
kasu bakotxean
erabilgarriena
izan daitekeen
egiturari lekua
egin deutso





taket

Sukalde eta bainugelako altzariak

- Bertako fabrikazioa
- FEBAL italiar sukaldeeen ordezkari

San Miguel 16 • Tel./Faxa: 94 673 45 83 • ZORNOTZA
Olleria 3 • Tel.: 94 620 15 16 • Faxa: 94 620 13 99 • DURANGO
Esteibarlanda 5 • Tel.: 94 655 06 17 • ELORRIO

Etxeko hezurdura



Marmola, baldosa eta azulejoen artean geroago eta eskaintza zabalagoa

Etxebizitzak dekoratzen hasi orduko, badago mamitu beharreko beste alderirik. Adibidez, lurzoru zein hormei be garrantzia emon behar jake, nahiz eta, sarritan, altzairuetan, argiztapenean eta enparaueetan bakarrik jartzen dogun arreta. Hori dela eta, etxearen hezurdura gauzatzeko egokiak izan leitezke marmola, baldosa edo azulejoa, besteak beste.

Marmola da lurzoru hotzetan jaun eta jabe, giro fin eta dotorea eskaintzen dauelako. Harlauza handietan zein mosaikoetan era askotako marmolak aurkitu geinkez, besteak beste, Hego Afrika beltza, marfil krema edo alkantara gorria. Gainera, beste marmol, tarima edo material batzuekin tartekatu leitezkeen gogortasun handiko materiala da.

Beste aukeretako bat baldosazko zoladurak izan leitezke. Materialak harri natural zein artifizialezkoak, terrazozkoak, zeramikazkoak, gresezkoak, beirazkoak edo plastikozkoak izan leitezke, beste hainbaten artean. Orokorrean itxura onekoak eta garbitzeko errazak diren arren, hotzak eta gogorrak dira. Adibidez, lurreko berogailua-
rentzat ezin hobeak dira, eta horrez gain, iraunkorrak be badira.

Bioeraikuntza


Orokorrean, bioeraikuntzako materialak ahalik eta naturalenak izan behar dira (hau da, erradiazinorik, gasik edo partikula toxikorik bakoak), eta horrez gain, obra gunetik alait gertuen lorturikoak, lanketarik sinpleena izan behar dabe, urarekiko iragazgaitzak, baporearekiko iragazkorrak, eremu magnetikoan eraginik bakoak eta birziklagarriak.



LAGOI

S.L.

ERAIKUNTZA MATERIALAK



Biltegia: Arriandi auzoa, z/g • 48215 IURRETA • Tel.: 94 620 33 22 • Faxe: 94 621 58 74

Erakusketa: Montevideo etor., 9 • 48200 DURANGO • Tel.: 94 621 52 84 • Faxe: 94 621 52 85

www.lagoi98.com

Etxeko arropak dekorazino osagarri

Kolore eta material anitzeko eskaintza aukeran



Sukaldean eta bainugelan argi zuriak kokatu geinkez sabaian eta apalen azpian

Gainerako dekorazinoa zehaztuta dogunean, etxeko arropak aukeratzeko ordua heldu da. Eskaintza zabala topatu geinke edredoi, izara, kuxin, toaila eta bestelako osagarrietan. Diseinuan erreparatu behar den arren, garrantzitsuena kalitateko etxeko arropak eskuratzea da.

Etxeko guneak aztertzen hasiz gero, egongelan zutikako lanparak erabiltzea litzake gomendagarriena, argia etxearen sabairantz bideratzen dabelako. Bestetik, hori koloreko anpuluekin eta estrategikoki kokatutako kolorezko estalki bategaz egongelari erraz-erraz emon leikio efektu koloretsua.

Sukaldean eta bainugelan, barriz, argi zuriak kokatu geinkez sabaian eta apalen azpian. Eta argia gelan zehar sakabanatuako daben ezarkinak erabiliz, itzalak eragitea ekidingo dogu.

Azkenik, logelan, argi leuna jalgitzen daben zutikako lanparak erabili geinkez, eta horregaz batera, oso erabilgarriak dira mahaitxo gainean jartzen diren irakurtzeko-lanparak.

Argitasun bila

Argiztapena oso atal garrantzitsua da etxea osatzeko orduan, bere esku dagoelako bizi-kalitate hobea izatea, etxeko eremuei etekin handiagoa ataratzea eta ikuspen hobea lortzea, horretarako, etxeko dekorazino elementuak eta altzariak nabarmenduz.



Gortinak

Sarritan badirudi eraldaketa handiak egin behar izaten direla etxeetan efektuak be horrelakoak izan daitezten. Baina, ez dago zertan. Aurretiaz azaldu dogun moduan, koloreen konbinazinoa-gaz lantzen gabilzen gelaren tamaina

Royuela decor

Kalebarria, 40 Durango • Tel.: 94 681 05 82
Faxo: 94 603 03 45 • royuela@royueladecor.com

Royuela Decor, S.L.



Revestimientos y Tapicerías

Fray Juan de Zumarraga, 2 Durango
Tel.: 94 681 49 46 • Faxo: 94 620 25 97

ILARGI

ARGIGINTZA

Askatasun etorbidea 20 . 48200 DURANGO Tel-Faxa: 94 681 24 92



handitu edo txikitu geinke. Eta koloreekin legez, eragin bera lortu leiteke errezelen aukeraketa egokiagaz be. Adibidez, leiho bat handitzeko edo zabaltzeko aukera ona da marrak norabide horizontalean daukiezen arto koloreko gortinak lihozko beste bategaz konbinatzea. Beste aukera bat izan leiteke lihozko eta kotoi estanpatuzko errezel eder bat erabiltzea. Halan be, gortina horreekin giro aproposa lortzeko, atzealdea kolore neutroren batekoa izatea aholkatzen dogu, horretarako, tonu naturalak aukera egokia izanik.

Klasikotasunetik irten gura izanez gero, store estiloko gortinak dira aurtengo berrikuntzetako bat. Estore gortinak edo japoniar panelak Ekialde Urrunetik datozen eguzki-estaltzaileak dira, eta hagatxo tolesgarriak elkartutako panel independentez osatuta dagoz.

Edredoiak

Gaur egun modan dago edredoiak apaintzea. Hainbat pausu emon leitekez edredoiari beste ikutu bat emoteko. Batetik, beira-aleak josi leitekez. Bestetik, edredoiak josten diren metal argidunak edo plastikoz eginiko ale borobil txikiak izaten dira beira-aleak, eta argia zuzentzen jakenean dirdira zoragarria sortzen dabe. Bigarrenik, botoiak bezalako gauza sinpleek be apaintzen lagundu leikiela ohartuko gara.

Adibidez, botoiak talde txikiak osatuz josi leitekez, horrela, eremu lau bat edertuz. Zinta edo bordatu batzuen gainetan josita be, itxura edergarria emon leikio edredoiari.

Gortinen kolorearen aukeraketa egokiagaz gelaren tamaina handitu leiteke



Edredoiak norberak bere gustura diseinatu leikez, osagarri egokiak aukeratu eta josita baino ez



izara
Lentzeria eta Dekorazioa

Urarka, 3 Elorrio
Tel.: 94 682 00 53



MARKIEGI

ARGIZTATZE TEKNIKAK
ARGINDAR PROIEKTUAK

Plateruen plaza, 4 behea DURANGO

Tel.: 94 620 35 20 - 94 620 21 76 Faxa: 94 681 56 95

markiegi@markiegi.com

Papera: erraza, garbia eta originala



Etxeko hormak lantzerako orduan lehenbizi otutzen jakuna horreek margotzeko aukera da. Halan be, hormarako papera geroago eta garrantzia handiagoa hartzen dabil. Erabaki hori hartzeko hainbat arrazoi dago; alde batetik, erraztasun handia eskaintzen deusku lan egiteko orduan, eta, bestalde, konbinazino mugabakoak ahalbidetzen ditu paperak, profesionalaren irudimenaren menpe egonik azkeneko emaitzaren originaltasuna.




Gaur egun indar gehien hartu dauen paper estiloa binilo papera edo paper plastifikatua da, eta hezetasun handiko eremuetan da eraginkorrena.



Gehienetan, sukaldeetan edo bainugeletan zeramikaren aldeko apustua egiten den arren, azulejuaz eta baldosaz gainera, paper margotzuak be ederto atundu leikez eremu horreek, paperak daukan binilo kapa dela-eta, garbitzeko errazak eta iraunkorrak direlako. Arrazoi beragaitik, etxeko haurren logeletarako be aproposak dira, belaki edo trapu umel bat baino ez da-eta behar paperok garbitzeko.





Bestalde, papera ez dogu zertan gelako horma guztietan jarri; horma bakarrean zein gelako zenbait hormatan jarrita be nahikoa izan leiteke. Areago, horma baten diseinu jakin bat itsatsi geinke, eta hurrengoan beste kolore bateko modelo bera; beti be, konbinazinoak egiterakoan irizpide batzuk jarraituz.



Hezetasunari aurre egiteko ezin hobe da papera

Hormetako pegatinak

Modan dagoen beste baliabideetako bat stickerra da; hau da, hormetan jartzen diren dekorazino-pegatina handiak. Kasu honetan, stickerrak ez dira horma guztian jartzen. Eta pegatina bakarra jarrita be gelari ikutu desbardin eta moderno emon geinkio. Era askotako irudiekin egindako pegatinak izaten dira, eta kontuan hartu behar den gauza bakarra etxeko zein lekutan jarri gura dogun da. Adibidez, dekorazino gehigarri honetan kuxinen kasuan azaldu dogun moduan, stickerrak gure zein gure inguruko argazkiz eginda egon leitekez.




Gure norabidea aldatzeko moldatzen dugu gure ingurua

a-metz
[barne]diseinua

Ibaizabal 3A behea • Durango • Tel.: 94 681 84 81 • www.a-metz.com

Diseinua
Dekorazioa
Ideiak
Proiektuak - 3D
Legalizazioak
Erreformat
Gremioen
koordinazioa
Zuzendaritza
Altzariak
Osagarriak

Etxeko ateak, leihoak eta lurreko zura bat eginez



Lurra aukeratzeko material mota bi dagozela esan leiteke: beroak eta hotzak. Zura beroen taldean sartuko litzake. Lehenengo multzokoei etxeari giro eroso eta gozoa ematen deutesie, modernitateari eta diseinuari uko egin beharrik ez dagoen arren. Baina, orokorrean, era horretako materiala etxearen estiloa klasikoa denean erabili ohi da. Nahiz eta, bere aldakortasuna dela-eta, erabat modernoa den etxebi-

zitzetan be erabili leitekeen material beroa. Era guztietako aukerak egon arren, erabilienak zur noblezko zoru tradizionala eta parketa dira.

Ate irristakorrak

Aspaldion, leku falta izaten da etxebizitza asko eta askotako arazo nagusia, eta horri erantzun bat bilatzeko asmoz ate-irristakorra da arrakasta lortu dauen ate estiloa, gure etxean topatu gein-kezen oztopo arkitektonikoei aurre eginez. Ate tradizionalak traba izan leitekez gure etxea dekoratzeko orduan, buruan geunkazen ideia eta asmo ugariei mugak jarritz. Ate irristakor horrekin hainbat forma eta egitura lortu geinkez.

Leku falta dagoen etxeetarako ate irristakorrak irtenbide ezin hobe dira



Ateak Leihoak Oholtza Horma-armairuak

gaztañeta

Erakusketa:

Goienkale, 18 DURANGO
Tel./ Faxe: 946 201 367

KONFIDANTZA

merkatuan daramatzagun 40 urteetan - frogaturiko gure profesionaltasunean - salmenta ondorengo gure zerbitzuan
bezeroarekiko arretarako gure gunean - Bautista altzari eta dekorazioko pertsonengan
2008ko MERKATARITZA SARI NAZIONALAGATIK

BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LLODIO - ABADIÑO

www.bautistamuebles.com



3 m-KO EGONGELAKO ALTZARIA, BESTE HAINBAT OSAKETA ETA AKABATU-AUKERAN

egongelako altzariaren prezioa eskura ordainduta:

1.600,00 €

egongelako altzariaren prezioa finantzatuta:

sarrera:

475,00 €

lehenengo ordainketa 2009ko abuztuari:

9 ordainketa:

125,00 €



OHE OSOA ETA BI MAHAITXO BARNE. BESTE HAINBAT OSAKETA, NEURRI ETA AKABATU-AUKERAN

logelako altzariaren prezioa eskura ordainduta:

1.036,00 €

logelako altzariaren prezioa finantzatuta:

sarrera:

325,00 €

lehenengo ordainketa 2009ko abuztuari:

9 ordainketa:

79,00 €

ELKARRIZKETA > MUSIKA



“Hirukote lez plazaratzen dogun lehenengo diskoa da ‘Rock terapia’ barria”

Gaur Hendaian eta maiatzaren 22an Plateruenean ditue Lor osatzen dabena hiru elorriar gazteek ‘Rock terapia’ disko barriaren aurkezpen kontzertuak. Hirukote moduan datoz hirugarrenean.

Hendaiaiko Kanttu tabernan estreinatzen dozue gaur ‘Rock terapia’ disko barria.

Bai, Hendaiaiko Kanttu tabernan egingo dogu lehenengoa: entsegu orokor modukoa izango da kontzertu hori. Plateruenean jo aurretikleku txikitxo batean jendaurrean jo gura genduen.

Plateruenekoa prestatzeko...

Bai, zelanbait esatearren, entsegu lokaletik kanpora disko barriko kantak jotzen doguzen lehenengo aldia da gaur gauekoa. Gehienbat gu zelan gagozen ikusteko, konfidantza hartzeko kontzertu bat legez ikusten dogu.

Zenbat denpora daroazue kontzerturik jo barik?

Badaroagu urte eta erdi edo bi urte inguru kontzerturik emon barik. Diskoa prestatzen denpora asko emon dogu; abestiak sortu, moldatu, grabatu eta entseguak egiten urtebete jadanik.

Zelan emon dozue hainbeste denpora kontzertu barik?

Normalean holan egiten dogu: diskoa atera eta ia bi urte emoten doguz kontzertu asko emoten. Gero, gure osasunerako be onuragarria delako, geratu egiten gara denboraldi batez. Sei hilabete egon ginen bakotxa bere aldetik, eta barriro hasi ginen disko honetako abestiak sortzen.

Hirukote moduan ateratzen dozuen lehenengo diskoa da?

Bai, hiruron lehenengoa da. Kontzertuak, aldiz, hamar-hamabost jo doguz hirukote moduan. Bigarren diskoaren ondoren, Kimezek taldea itzi ebanean beste lagun bategaz ibili ginen probak egiten, baina azkenean hirurok

segitzea erabaki dogu: taula gainean sentsazio ona lortu genduen hirurok, eta holan egin dogu aurrera.

Zenbat denpora daroazue hirurok Lor taldean?

98ko abenduan sortu genduen lau lagunek Lor, eta hurrengo urteko irailean edo jo genduen lehenengo kontzertua, jaietako Rock txosnan. Hamabost urtegaz. Hamar urte daroaguz.

“Urte eta erdi edo bi urte daroaguz inguru kontzerturik emon barik”

“Formazioan zein musikalki, eboluzino naturala izan dogu urteotan”

Esperientziaren diskoa ei da ‘Rock terapia’ barri hau...

Gazteak gara oraindino, baina, 2003an grabatu genduen lehenengo diskoa, eta sei urte dira jadanik. Lehenengo maketatik eboluzino naturala izan dogu; formazioan zein musikalki eboluzionatu egin dogu, gure gustuko musikara bideratuz. Ez da lehen egiten genduen musika gustuko ez dogulako edo lehen entzuten genduzen musika taldeak gustatzen ez jakuzenik orain, baina, bizitza legez, musika be eboluzino da.

Zein izan da eboluzino hori?

Hasiera batean, hamabost urtegaz gure kantak be bageunkazen, baina Su Ta Gar eta EH Sukarra lako taldeen bertsinoak egiten genduzen. Gure musika heavy-rock estilokoa zen. Hor-tik rock-metalera pasatu ginen, eta orain rock eta tendentzia barriak lantzen doguz. Rockean zentratuz, Ameriketako rock alternatiboa, melodikoa egiten dogu, hardcore apur bategaz.

Hainbat kolaborazio izan dozue diskoan...

Disko guztietan saiatzen gara kolaborazioak lantzen; letretan zein instrumentuei edo aho-tsei jagokenez. Durangaldeko bertsolari bi (Miren Amuriza eta Ibai Guridi bertsolariak) eta Xabi Paya izan dira letra bana idatzi dabena. Ahots aldetik, *Elkartasun itxaropen* abestian Kauta taldeko Mikel Morenok eta Fernando “Sapo”-k hartu dabe parte. Sarkor taldekoak koroak egiten izan doguz lagun.

Letretan be lehen aitatzen zenduen eboluzino izan dozue?

Ezagutzen dogunaren inguruan idazten dogu: gure bizipenak, gizartearen arazoak... Gure motibazio eta deserosotasunei buruz idazten dogu. Ez dira letra oso kreatibo edo filosofikoak; nahiko naturalistak dira. Lehenengo diskotik honetara dagoen saltoa, tarte horretan gure bizipenak gehitu egin direla da, eta igartzen da letretan.

Zelakoa da ‘Rock terapia’?

Oso rockeroa da diskoa. Badaukaz bere pop ikutuak, bere hardcore zatitxoak... Gustuko dogunaren *collage* bat da. ■ I.E.

Bizitzan aurrera egiteko lagungarri: Rock terapia

Ezustean harrapatu ei zituen bigarren diskoaren arrakastak. Kontzertu piloa eskaini eben *Bakoitzari berea* aurkezteko. Ondoren, “trabatu egin zen apur bat dena”, azaldu deusku Kimetz baxu-jotzaileak: bi urte biran ibili ondoren, Durangoko Plateruenean eskaini eben birako azken kontzertua. Kolaboratzaile asko izan ziren, eta egun haretako oroitzapen polita daukie. Orduan ez ei zekieen urtebete, bi edo zenbat denpora emongo eben geldirik; kontzerturik, terapiarik barik. Ia urte bi izan dira, baina ez ei dabe “bizitza Lor barik ikusten” hiru musikariek.

Euskal Herrikanpo ere euren musika erakustea dabe orain helburu; jo, diru apur bat aurreztu eta atzerrira ateratzea. “Ohol-tza gainean jotzen ikusten gaituenean jenteak dituen aurreiritziei buruzko abesti bat” oinarri dauen *Rock terapia* diskoa kontzertuetan jotzen hasita berrartuko dabe euren terapia.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

MAIATZAK 15 22:00etan
DARKNESS BY OATH + LEGEN BELTZA + IRREVERENCE
KONTZERTUA. Sarrera: 6-8 euro.

MAIATZAK 22 22:00etan
LOR (“rock terapia” disko berria) + **NAMEK PLANET**
KONTZERTUA. Sarrera: 6 euro.

MAIATZAK 24 17:30etan
EUSKAL KARAOKEA
TXATXILIPURDI ELKARTEA
AISIALDIA EUSKARAZ. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

EL AMOR DE PERLIMPLIN CON BELISA EN SU JARDIN

Maiatzak 16
larunbata 20:00etan

NO TOQUEN MIS MANOS
Sombras chinas de Valeria Cuglietti
(Argentina)

Maiatzak 17
igandea 18:00etan

Histrion teatro (Granada)

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

11:34 60 07 76 Artekale, 14 Durango

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.

Maiatzaren 17an, 18:00etan

ITZALEN LILURA

Sortu zenetik bere itzalagaz egin dau bizimodua gizakiak. Hatzaparrak mogituz, eskuekin eta itzalekin jolasean hasi zen, eta denporaren poderioz jolasa arte bihurtu eben txinatarrek. Zinema mutuagaz, txobxongiloekin, komikiagaz eta musikagaz bat egingo dabe itzal txinatarrek Valeria Gugliettiren ikuskizunean. San Agustineria batutako publiko osoa liluratuko dau artista argentinarraren istorio bildumak.

ANTZERKIA

BERRIZ

- » **‘Munstroak akatu’ (Teatro Mutante)**, maiatzaren 15ean, 17:30ean, Kultur Etxean.

DURANGO

- » **‘El amor de Don Perlimplin con Belisa en su jardín’ (Histrion Teatro)**, maiatzaren 16an, 20:00etan, San Agustín kulturgunean. **‘No toquen mis manos’ (Sombras chinas de Valeria Guglietti-Argentina)**, 17an, 18:00etan.

ERMUA

- » **‘Ino, Ino, Ino... Bonbardino’ (Pirritx eta Porrotx)**, maiatzaren 16an, 18:00etan, plazan. Euskal Birusak eratuta. **Kale antzerkia eta bertsoak**, maiatzaren 17an, 19:00etan, plazan.

ZORNOTZA

- » **‘El amor de Don Perlimplin con Belisa en su jardín (Histrion Teatro)**, maiatzaren 15ean, 21:00etan, Zornotza Aretoan.



ERMUA

- » **XVII. Euskal Liburu eta Disko Azoka**, maiatzaren 14tik 17a arte, Orbe Kardinala plazan. **Irakurketa gunea** egokituko dau Liburutegiak

IURRETA

- » **I. Motorzaleen Topaketa**, maiatzaren 16an: 09:30ean izen emotea (bakotzak 10 euro). **Ibilbide irteera** 11:00etan, **bazkaria**, 14:30ean, eta, **zotz egitea** 17:30ean. **Rock kontzertua**, 18:30ean.

MALLABIA

- » **Tute eta Briska Txapelketa**, maiatzaren 22an. Izena emoteko maiatzaren 17a arte, Jubilatuen Etxean. Ondoren, txokolatea bazkide guztientzat.

ZALDIBAR

- » **Gaztelekua 12-16 urte bitarteko gazteentzat: Gau-pasa**, maiatzaren 15, 16 eta 17an, 16:00etatik 20:00etara.
- » **Eskualdeko II. Pilota Txapelketa**, maiatzaren 15ean, 19:00etan, Olazar frontoian; 16an, 16:30ean.

ZORNOTZA

- » **‘Gauero’ aisialdi programa (10-14 urte)**, maiatzaren 15ean eta 16an, 20:00etatik 23:00etara, Zelaieta zentroan.

BERBALDIA

ABADIÑO

- » **Durungaldeko Mogikortasun Jasangarrirako partaidetza foroa**, maiatzaren 20an, 19:00etan, Errota kultur etxean.



BERRIZ

- » **Durungaldeko Mogikortasun Jasangarrirako partaidetza foroa**, maiatzaren 18an, 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

- » **‘Conciliar la vida laboral y la lactancia’ (Euskadiko Esnearen Liga)**, maiatzaren 18an, 18:00etan, Andragunean (Pinondo Etxean).

ELORRIO

- » **‘Nikaraguan etxebizitza duinen alde lanean’ (Inma Escribano Kainabera GKEko kidea eta boluntarioa Nikaraguan)**, maiatzaren 21ean, 19:30ean, Iturri kultur etxeko areto nagusian. Kainaberak eratuta.

- » **‘Peru-Brasil abentura’**, maiatzaren 15ean, 19:00etan, Gaztetxean.

ERMUA

- » **Berbetan: Euskararen Historia (Juan Carlos Etxegoien “Xamar”)**, maiatzaren 19an, 19:00etan, Lobiano kulturgunean. Haurtzaindegiz berbitzua eskainiko dabe. Euskal Birusak, Kaltxango-AEK euskaltegiak, Udal Euskaltegiak, Anaitasuna ikastolak eta Eskolaberrik eratuta.

IURRETA

- » **Pentsino-osagarriaren legeari buruzko informazioa**, maiatzaren 21ean, 17:00etan, Jubilatuen Etxean. Durungaldeko Mankomunitateak eratuta, Etxebizitza eta Gizarte Gaiien Sailak lagunduta.

MALLABIA

- » **‘Estresa: zer egin bizitza osasuntsuagoa izateko’ (Sonia Ulazia pedagoga-Adindu)**, maiatzaren 20an, 16:00etan, Jubilatuen Etxean.

MAÑARIA

- » **Pentsino-osagarriaren legeari buruzko informazioa**, maiatzaren 19ean, 17:00etan, Jubilatuen Etxean. Durungaldeko Mankomunitateak eratuta, Etxebizitza eta Gizarte Gaiien Sailak lagunduta.

ZALDIBAR

- » **‘Bizilagun berria: Krisia (arriskua + aukera)’**, Joseba Barandiaran ekonomilaria). Maiatzaren 19an, 19:30ean, Udaleko bilkura aretoan.



- » **Durungaldeko Mogikortasun Jasangarrirako partaidetza foroa**, maiatzaren 19an, 19:00etan, Udaleko bilkura aretoan.

DEIAK

DURANGO

- » **Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.
- » **Julene Azpeitia haurreskolarako izena emoteko epea zabalik**, maiatzaren 15a bitartean.

ERAKUSKETA

ABADIÑO

- » **Santrokazak iragartzeko kartel lehiaketara aurkeztutako lanak**, maiatzaren 17a bitartean, Txanponta kultur etxean.

BERRIZ

- » **X. Kaleko Pintura Lehiaketako margoak**, maiatzaren 15a bitartean, Kultur Etxean.

DURANGO

- » **‘Ez dira pasako’, ‘Lost In Durango’ proiektu bekadunaren atala. Carlos Martinez**. Maiatzean, Arte eta Historia Museoa. 2007an, Udalak Arte Sorkuntza bultzatzeko bekak babestutako proiektua.

- » **‘XXV urte bidean, beti prest’ (Inurri eskaut taldea)**, maiatzaren 19tik 21a bitartean, San Agustín kulturgunean. Argazkia eta Inurriren film laburraren emanaldia.

IURRETA

- » **‘Animaliek hizketan zekiten garaian’ areto literarioa**. Maiatzaren 15a arte, erakusketa. Bisita gidatuak egingo ditue Lehen Hezkuntzako 1.-6. maila artekoekin.

ZORNOTZA

- » **‘Josturak’ (Fernando de Vicente). Margoak**. Maiatzaren 31a bitartean, Zelaieta zentroan.

IKASTAROAK

BERRIZ

- » **Sexualitatea heldutasunean**. Ekainaren 17a bitartean, Kultur Etxean. Eguaztenetan, 17:00etatik 19:00etara. Hezitzailea Miriam Herbón feminista, barreterapeuta eta soziologoa (94 682 40 36 / berdintasuna@berriz.org).

DURANGO

- » **‘Jabetzen: sexualitatea lehenengo pertsonan’**, ekainaren 10ean, 18:00etatik 21:00etara, Andragu-

nean. Izena emoteko ekainaren 3a arte (25 lagunendako lekua). Haurtzaindegiz berbitzua eskainiko dabe. Berdintasun Sailak eratuta.

ELORRIO

- » **Emakume eskolaren baitan barreterapia ikastaroa**, maiatzaren 19 eta 26an eta ekainaren 2an, 18:00etatik 20:00etara. Irakaslea, Ana Brea. Aurrez eskatuz gero haurtzaindegia izango da. Izena Udaletxean emon behar da.

IPUINAK

IURRETA

- » **‘Animaliak hizketan zekiten garaian’ Gorringo taldearen eskutik ipuin-kontaketa saioa**, maiatzaren 15ean, 17:30ean, Udal Liburutegian (lau urtetik gorakoak).

ZORNOTZA

- » **Izaskun Mujika ipuin-kontalaria**, maiatzaren 16an, 12:00etan, Udal Liburutegian.



JAIAK

ABADIÑO

Santrokazak

- » **Meza**, maiatzaren 15ean, 12:00etan eta ondoren, **Abadiñoko ezpatadantzari eta irlanderen saioa**, San Trokaz plazan. **Puzgarriak eta jolasak**, 16:00etatik 20:00etara, Ferialeku plazan, eta, 18:00etan, **Eskuz binakako pilota partidua: Antxia-Mitxelena Amantegi-Gorritiren kontra**, frontoian. Ondoren, **San Trokaz txapelketako eskuz binakako pilota finala**, Gazte Asanbladak eta Atxarte pilota eskolak antolatuta.

- » **Anje Duhalde + Gatibu**, maiatza-



ren 15ean, 22:30ean, Txosna Gunean.

- » **Puzgarriak, Crazy bike, aerografoa, txapa tailerra eta ludoteka puzgarria**, maiatzaren 16an, 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era, Ferialekuan. **AHTaren Mendiola obretara martxa** 12:00etan, Elkarlanak

maiatzeko agenda

Maiatzak 16 • Motorzaleen I.Topaketa
09:30 Izen ematea(10€)/11:30 Irteera/Bazkaria/Zozketa/Rock kontzertua

Maiatzak 16-17-23-24-30-31 • Iurreta Txirrindulari Elkarte
08:30 Irteera Iurretatik
23an - 08:00 XXVI. Elkarte eguna Iurreta-Biana


Maiatzak 19-20 • Irakurketa kluba liburutegian
19an - 16:45 (8-10urte) “Ez zait futbola gustatzen,eta zer?” / 17:45 (10-12urte) “Sabotaia”
19:00 (Helduak) “La maleta de mi padre” / “La analfabeta”
20an - 19:00 (Helduak) “Haragia”

Maiatzak 22 • Antzerkia. 19:00 “Euskarazetamol”. Mikel Deuna KT.

Maiatzak 23 • VI. Okela eta Ardao Eguna
11:00-15:00 Askondo kalean / 12:00-13:00 Ardo dastaketa ikastaroa / Umeentzako jolasak

Maiatzak 28 • Helduen ipuin kontalaria • 20:00 J.Ramsay/T.Grau

Maiatzak 30• Kross eskolarra, 10:00etan.
IX. Kirol jardunaldiak Maiztegi Herri Eskola. Guraso elkarte.



IURRETAKO UDALA

eratuta. 13:00etan, **Talde Batuak** dantza taldekoen kalejira.

» **Herri-bazkaria**, maiatzaren 16an, 14:00etan, Ferialeku plazan. Gero, bertsolariak: **X. Silveira**, **S. Colina**. **E. Abasolo "Abarkas"**, **A. Arzallus**.

» **Sokatira herrikoia**, maiatzaren 16an, 18:00etan, eta, 19:00etan, **kalejira errebindikatioa**, Txosnagunean. Gero, **triki-poteoa** Gaztetxetik. **Parrillada**, 21:00etan, Txosnagunean eta 23:00etan, **S.A.** eta **Distorsion**.

» **VI. Txori Kantarien San Trokaz Txapelketa**, maiatzaren 17an, 08:00etan. **Binakako San Trokaz Txapelketaren finala**, 10:30ean, trinketean (Tornosolo), eta, 11:00etan, **txistularien kalejira** (Txanbolin). **Paella Txapelketarako izena-emotea**, 12:30ean, Ferialekuan (14:30ean aurkeztuko ditue).

» **Txorromorro umeendako antzerkia**, maiatzaren 17an, 17:00etan, probalekuan, eta, **Zaparrada batukada**, 19:30en, plazan. **Txokolatada** 20:00etan eta **Gerbasi eta jaiei agurra**, 20:30ean.

LEHIAKETA

BERRIZ

» **San Pedro eta Santa Isabel jaiek iragartzeko kartel lehiaketa**. Lanak Udal Liburutegian aurkezteko azken eguna maiatzaren 22a da. Sariak: irabazleak 300 euro lortuko ditu; herriko onenak, 100 euro.

DURANGO

» **44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka iragarriko dauen kartel lehiaketa**. Lanak Gerediaga elkarteko egoitzara helarazo behar dira (Larrasoloeta 3, 48200-Durango). Azken eguna uztailaren 1a. Saria: 1.300 euro.

ERMUA

» **Santiagoak iragartzeko kartel lehiaketa**. Aurkezteko azken eguna ekainaren 11. Saria: 600 euro.

LITERATURA

IURRETA

» **Munduko emakumeen literatur tailerra: 'Txina'**, maiatzaren 18 eta 25ean, 18:15etik 20:15era, Udal Liburutegian. Aurretik, eskatuz gero, haurtzaindegi zerbitzua be eskainiko dabe (94 681 27 26 / biblioteka@iurreta.net).

» **Haurren irakurketa kluba**, maiatzaren 19an, Udal Liburutegian: *Ez zait futbola gustatzen, eta zer?* (Andoni Egaña), 16:45ean (8-10 urte), eta, 17:45ean, *Sabotaia* (Jay Leibold). **Helduen irakurketa kluba**, 19:00etan: *La maleta de mi padre* (Orhan Pamuk) eta *La analfabeta* (Agota Kristoff). Maiatzaren 20an, *Haragia* (Eider Rodriguez). Idazleagaz jarduteko aukera egongo da.

MUSIKA

DURANGO

» **Darkness by Oath + Legen Beltza + Irreverence**, maiatzaren 15ean, 22:00etan, Plateruenean.

» **Piano kontzertua (Bartolome Ertzillako ikasleak)**, maiatzaren 18an, 18:00etan. Bartolome Ertzilla musika eskolako aretoan.

ELORRIO

» **Malo + Dj Rojo**, maiatzaren 15ean, 22:30ean, Ateneoan. **Namek Planet + Bertan Bera**, maiatzaren 16an, 23:00etan, Gaztetxean.



Maiatzaren 15ean eta 16an

SOZIEDAD ALKOHOLIKA + GATIBU + ANJE DUHALDE, ABADIÑON

Euskal Herriko musika panoraman euren lekua hartuta daukien taldeak ekarriko ditue Abadiñora Santrokazek datozen egunotan. Gatibu talde gernikarrak eta Anje Duhalde abeslari lapurtarrak egingo dabe bat, gaur, Txanporta plazan egokitutako eszenatokian. Zapatuan, barriz, Soziedad Alkoholikak joko dau. Ia 20 urteko ibilbidea daroen gasteiztarrek jarraitzaile sutsuen animoak piztuko ditue 'Ratas' eta 'Nos vimos en Berlin' lako abestiek. Distorsión taldeak be joko dau bihar.

ZORNOTZA

» **Eleizatan: Klezmatika hirukotea**, maiatzaren 16an, 20:00etan, Duedeako San Migel basilizan.



ZINE-KLUBA

ABADIÑO

» **Zine foruma**, maiatzaren 21ean, 18:30ean, Errota kultur etxean. Anboto Azpiko Damak eratuta.

BERRIZ

» **Zine emanaldia**, maiatzaren 17an, 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

» **'Gran Torino'**, maiatzaren 21ean, 20:30ean, Zugaza Zineman.

» **Boluntariotzari buruzko film laburra**, hilaren 20an, 20:00ean, San Agustin kulturgunean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Angeles y demonios

Zuzendaria: Ron Howard
barikua 15: 19:00 / 22:00
zapatua 16: 20:00 / 22:30
domeka 17: 19:30 / 22:30
astelehena 18: 19:00 / 22:00
martitzena 19: 20:00



Vamos a luna (3D)

Zuzendaria: Ben Stassen
zapatua 16: 16:00 / 18:00
domeka 17: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia

The visitor

Zuzendaria: Thomas McCarthy
zapatua 16: 22:30
domeka 17: 20:00
astelehena 18: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

Gran Torino

Zuzendaria: Clint Eastwood
zapatua 16: 22:00
domeka 17: 20:00
astelehena 18: 20:00



BOTIKAK

Barikua, 15
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
09:00-22:00
• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)
Zapatua, 16
09:00-09:00
• Irigoien
(Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
09:00-13:30 (*14:00)
• Navarro / Mugica / Campillo / De Diego / Unamunzaga / Sagastizabal / San Roma / Balenziaga (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien
(Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)*
Domeka, 17
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6 - Durango)
Astelehena, 18
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Bengoa
(Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
Martitzena, 19
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
Eguaztena, 20
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
Eguena, 21
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112

GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466

TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte ..670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565

UDALAK
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOA
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

7
12° BARIKUA ☁
Giro hotzagaz hasiko dogu eta goizean zaparrada batzuk botako ditu. 1200 m-tik gora elurra egingo dau. Arratsaldean be, ostarteak zabalduko dira. Mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da.

8
16° ZAPATUA ☁
Giro hodeitsuagaz jarraituko dogu. Goizean hodeiak ugaritzen joango dira, baina ostarteak ikusiko doguz eta hegoaldeko haizea ibiliko da. Arratsaldean zerua erabat estalita geratuko da.

8
15° DOMEKA ☁

8
17° ASTELEHENA ☀

12
22° MARTITZENA ☁

ERITZIA[>]

Gutunak @

Laborantza transgenikoa eta ez-transgenikoa elkarbizitzea gezur borobila da

Laborantza transgenikoa eta ez-transgenikoa (konbentzional eta ekologikoa) elkarren ondoan egotea baimentzen duen dekretua onartu berri du joandako Eusko Jaurlaritzak, jendea nahastuz eta gezur borobil bezain handia den elkarbizitze horri babesa emanez. Laborantza transgenikoak eta ez-transgenikoak ezin dute elkarrekin bizi. Bizikidetasun horrek kutsaduraren bidez transgenikoak inposatzea dakar; kutsadura hori kontrolatzea erabat ezinezkoa baita. Are gehiago, gizarteak elikagai transgenikoak errefusatzeko dituela jakinda, elkarkidetasuna erabiltzen da transgenikoak disimuluz sartzeko. Grabeagoa da gizarte osoak ordaintzen duen Gobernu batek kasu honetan Eusko Jaurlaritzak gezur hori babestea. Gainera, Jaurlaritzak bere egunean Euskal Autonomia Erkidegoa "Transgenikorik Gabeko Zonaldea" izendatu zuen, eta hori guztiz ezinezkoa da aipatu elkarbizitza onartzen bada.

Gizarteko erakundeek nekazaritza, ingurugiro, kontsumo eta langile arlokoak Eusko Jaurlaritzari behin baino gehiagotan erabat transgenikoen kontra daudela adierazi diote eta, hain zuzen, dekretuaren ziriborroa ez zutela onartzen esan zioten, elkarbizitza hori ez dela posible azpimarratuz. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak ez du kasurik egin eta legealdiaren amaieran aipatu dekretua onartu du, Eusko Jaurlaritzari berriari "mokordoa" utziz. Zer interesek eragin zion aurreko Eusko Jaurlaritzari hau egiteko, gizartearen iritzia eta egiari bizkarra emanez?

Azteraz begiratzen bada, Eusko Jaurlaritzak "Transgenikorik Gabeko Zonaldea" izendatu zuenean, debekua oso mugatua izan zen; gizakiok eta abereak elikatzeko transgenikoak debekatzea bakarrik onartu baitzuen. Ez zituen farmaziagaiak edo nekazaritza-erregaiak egiteko edo helburu industrialetarako laborantza transgenikoak debekatu, nahiz eta hauek laborantza ez-transgenikoak (elikatzekoa barne) kutsatzeko ahalmen bera eduki. Laborantza transgenikoak kutsadura eragiten du beti, berdin da zein den laborantza horren erabilera. Izan ere, arto, koltza, azukre-erremolaxa, patata edo koltza laborantza transgenikoek produkzio bereko laborantza ez-transgenikoak kutsatu ahal dituzte.

Beraz, dirudienez elikagaien kasura bakarrik mugatutako debeku hori, nahita eta hurrengo pausua izan den elkarbizitza hori legalizatzea pentsatuz egina zen. Gainera, legalizazio hori legealdiaren azken momentuan egin da, aurreikusgarria zen gizartearen protestaren aurrean burua gehiago ezkututzen saiatzeko.

Esperientziak eta ikerketek elkarkidetasun hori ez dela posible frogatu dute: transgenikoak ala ez-transgenikoak, erdiko biderik ez baitago.

Transgenikoekiko elkarbizitza eta kutsadura transgenikoa sinonimoak dira, eta transgenikorik gabe ekoizteko baserriarrek izan behar duten eskubidea zein transgenikorik gabe jateko kontsumitzaileek izan behar duten eskubidea zapaltzen dituzte. Beraz, ekoizpen eta kontsumo librearen kontrako atentatua da.

Hausnarketa honen ondoren, Eusko Jaurlaritzak berriak elkarbizitzari buruzko dekretu hori ezabatu behar du, gizartearen borondatea errespetatuz. Halaber, Jaurlaritzak berriak ikerketa zentro publikoak transgenikoen inguruan egiten ari diren inbertsioak eta ekimenak ikertu eta gelditu behar ditu, kalte handiagoak eragozteko. Ekimen transgeniko horiek ez dute ezer onik ekartzen nekazaritza sektorearentzat, nahiz eta Nekazaritza Sailaren diruarekin ordainduak izan.

Román Bengoa Larrañaga, "LURREKO" ekoizle ekologikoen elkarte

Ikasteko eskubidea

Azken egun hauetan, Sarkoizy eta Rodríguez Zapaterok, beste behin ere, Euskal Herriaren aurkako auzian erabat ados daudela erakutsi nahi izan digute. "Frantziak diskurtso bakarra duela" dio, eta espainiar Estatuak urte luzeetako erasoaldiaren hainbat frogak eskaintzen digu.

"Adostasun" hori zuzen-zuzenean pairatzen dutenak gure senide eta lagun errepresaliatuak izaten dira, etengabeko zigor eta jazarpena pairatuz. Gure senitartekoak makurrarazteko dena ei da zilegi. Muturreko salbuespen egoera batean bizitzera zigortu eta euren oinarritzko eskubideak etengabe urratzen dizkiete. Ez da zigor nahikoa euskal presoak milaka kilometrotara urruntzea, ziega hotz eta ilunetan bakartzea, kartzeletan baldintza ezigiztiarrak ezartzea, gaixotasun larri eta sendaezinak izan arren giltzaperatuta mantentzea, Bizi Osorako Zigorako legeztatzea, komunikazioak murriztea, asteburu oro milaka lagun eta senideren bizitza arriskuan jartztea. Orain, elkartasuna helarazteko ekimenak ere ezabatu nahi dituzte.

2003an espainiar zein frantziar estatuetako kartzeletan zeuden 300 preso kaleratu zituzten UPVtik, hasitako ikasketak bertan behera utzi behar izan zituztelarik. Euskal preso politikoen aurkako bidegabekeria estaltzeko, legea aldatu behar izan zuten. Baita egin ere, inpunitate osoz. Geroztik, behin eta berriro erabili dute formula bera; hots, legalitatez jantzitako jokabide politiko ankerre. 2004an Gasteizko Legebiltzarrak lege besteko proposamena onartu zuen; bertan, ikasle presoek ere ikasteko eskubidea dutela adieraziz. Urte bereko udazkenean, aho batez onartu zuten UPVn kartzelan ikasketak egin ahal izateko protokoloa. Protokolo horri esker, frantziar estatuko kartzeletan zeuden euskal presoek ikasteko aukera eman zitzaion. Baina, Protokoloa ez da nahikoa, berriz, espainiar Estatuko kartzeletan dauden presoek ikasi ahal izateko; lege aldaketak UPV eta Kartzela Zuzendaritzaren arteko hitzarmen bat eskatzen baitu. UPVn hitzarmen hori eskatu duen arren, ez diote aldeko erantzunik eman.

PPk eta PSOEko hainbat agintarik ez dute inoiz begi onez ikusi frantziar Estatuko kartzeletan dauden euskal presoek UPVn ikasteko aukera izatea. Horiek horrela, hainbat saiakeraren ostean, aukera hori ere ukatu diote, Protokoloa bertan behera utziz.

Orduan egin genuen galdera bera egingo dugu orain: zeren ize-nean ukatu ahal zaio pertsona bati ikasteko eskubidea? Are gehiago, kartzelan egonik. Presoak askatasuna galdu arren, pertsona orok dituen eskubide berberak baititu, ikasteko eskubidea barne.

ETXERATEk gure senide eta lagunek ikasteko duten eskubidea bermatzeko egin du lan, eta bide horri eutsiko diola argi utzi nahi dugu. Izan ere, oinarritzko eskubidea izateaz gain, oso garrantzitsua da kartzelaldiari aurre egin ahal izateko.

Euskal jendarteari, UPVri, sindikatu, eragile eta alderdiei gurekin bat egitea eskatzen diegu. Gure senide eta lagunei ikasteko duten eskubidea bermatu behar diegu, euskaraz eta Euskal Herriko unitertsitate eta ikastetxeetan.

Etixerat

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

kolaborazinoa



Gotzone Barandika
UPV/EHuko irakasle eta ikertzailea

Bikini operazioa

Eguraldi ona datorrela-eta, kilo batzuk galdu guran badabilen jende-piloa dago, horrela jantziak hobeto erakutsiko dituztelakoan. Argaltasuna eta edertasuna berdintzen dituztenak asko badira ere, beste askoren ustez, zoriontasuna da edertasunaren kide egokiagoa. Zer esanik ez, zoriontsuak izan gaitzen osasuna garrantzizkoa da, eta horrekin batera datorkigu ondo elikatu beharra.

Valentí Fuster kardiologo ospetsuaren ustez, nahikoa dugu dieta osoaren hiru laurdenak osasuntsuak izatea. Osasun psikologikorako ere antzeko aholkuak ematen dizkigute adituek. Azken finean, bakoitzaren elikatzeko estiloa bere bizimoduaren adierazgarria ohi da. Hots, oreka emozionalean bizitzeak ez du esan nahi beti egon behar dugunik oreka horren erdiguneko puntuan. Noiz-behinka zentrotik alde batera edo bestera jo beharra dago. Noiz edo noiz, gehiegikeriaren bat egin behar da. Noiz edo noiz, bihurriak izatea guztiz gomendagarria omen da. Osterantzean, bizitza guztiz aspergarria izango litzateke.

Orduan, osasuntsuak (eta zoriontsuak) izan gaitzen, gehienez zenbat bider alderatu beharko genuke oreka-zentrotik? Eta urruntze horiek zenbatekoak izan beharko lirateke? Zorionez, galdera horiei erantzuna emateko formula matematikorik ez daukagu. Nor bere erantzunak dauzka. Beraz, oreka-zentrorra itzuli nahian bikini operazioari hasiera eman diotenei, adore emateaz gain, zera esango nieke: barrea dugula edertasun-tratamendu merkeena eta eraginkorra.

Elikatzeko estiloa
norbere bizimoduaren
adierazgarri omen da



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2009ko maiatzaren 15a - 8. urtea - 330 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazioa:
Itziar Belar eta Miren Abasolo.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri, Maria Gonzalez., Itsaso Esteban, Markel Onaindia
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit Fernandez eta Kepa Aginako.

KIROLAK >



Sasikoa eta Ancla Dosanpor elkarri zirika ibili dira denboraldi osoan. Batak ez dio besteari arnasa lasai hartzen utzi. Lider zegoenak beti izan du bigarrenaren itzala mehatxuka. Joan zen asteburuan elkarren kontra jokatu zuten Landakon: horixe zen kontuak garbitzeko tokia eta unea. Sasikoak erakustaldia eman eta 5-2 menderatu zuen Sestaoko taldea. Igoera matematikoa lortu zuen, etsairik arriskutsuenari irabazita. Zalan-tza barik, onenak lortu du Ohorezko A Mailarako txartela.

Anclak durangarrei utzi zien baloiaren jabetza, eta kontraerasora planteatu zuen partidua. Sasikoak, ordea, baloia zentzuz mugitzeaz gainera, serio jokatu zuen atzean. Edonondik begirata, hobia izan zen.

Onena igo da

Partidu amaieran urte osoan pilatutako tentsioa askatu zuten jokalariek. Kantxan hasi eta Durangon amaitu zituzten ospakizunak, afari baten baitan. Zaleek ere ez zuten hutsik egin, jende gehiago espero zen arren.

Erregularitasuna

Sasikoa erregularitasunak eta ligako azken txanpa harrigarriak eramanez gailurrera. Bolada txarretan, ipar-haize hotzak jo dienean, ez dira urduritu eta beti eman dute maila. Hego-haizea lagun izan dutenetan, aldiz, ez da egon euren erritmoari eutsi dienik; ligako azken hilabetea, esaterako: bost partidu irabazi dituzte jarraian.

Dagoeneko, datorren denboraldia prestatzen dabiltza. Hasi

Sasikoak Ohorezko A Mailan jokatu du berriro datorren denboraldian

dute bulegoko lana. Izkepot taldeko jokalaria bi eta UPV-EHUKO bat fitxatuta dituzte. Babesle berrien bila ere badabiltza.

Bestalde, Sasikoa B igoeraren atarian geratu da. Kukuiagaren kontra 6-2 galdu ondoren, ez dute aukerarik. Urte osoan egindako lan ona ezin izan dute borbildu. Asteburuan La Bellota taldearen kontra itxiko dute aurtengo denboraldia. ■ J.D.

24 Kulturala Bizkaiko Koparen atarian

Durango Kulturalak kanpoan lortutako errentari eustea nahikoa du finalera iristeko areto-futbolean. Iurretako, aldiz, Kopatik kanpora utzi du Barakaldok futbolean.

25 DRT Euskadiko Kopako finalean

Durango Ilarduya denboraldiko partidurik garrantzitsuenaren atarian dago. Euskadiko Kopako finala jokatu du Mungia-Kakarraldoren kontra Plentzian.

Iurretako kanpoan geratu da, Kulturala final atarian dago

Barakaldok Bizkaiko Kopatik baztertu du Iurretako futboleak; Kulturalak, berriz, bere esku du Kopako finalerako txartela



Partidu parekatua jokatu zuten, eta penalti batek erabaki zuen kanporaketa. Judit Fernandez

Dena oker atera zitzaion Iurretakorik. Beroketa ariketak egiten zebilela orkatila bihurritu eta Lidia Lindez hamaikakotik kanpora geratu zen. Ondoren, partidua amaitzeko hamar minuturen faltan, epaileak penalti eztabaidagarria agindu zuen Barakaldoren alde. Gainera, Iurrera joan zen jokalaria jokoz kanpotik zetorrela uste dute Iurretarek. Kontuak kontu, Barakaldok ez zuen hutsik egin, eta finalerdietan dago.

Iurretakok esperantza handiak zituen, finalera arteko arerioak indartsuak bai baina gainditzeko modukoak zirelako. Beraz, ulertzekoa da partidu amaieran jokalaria erakusten zuten tristora, batez ere, kanpokoen gola nola iritsi zen ikusita.

Durango Kulturalako emakumeek, aldiz, oso gertu dute Bizkaiko Kopako finala. Zornotzaren kontra 2-3 irabazi zuten. Bihar Landakon jokatu dute bueltako norgehiagoka. Euren esku dute finalerako pasea. Edozein berdinketa nahikoa dute aurrera egiteko.

Kulturalaren eta Zornotzaren arteko partidua intentsoa izan zen; gogorra ere bai, bigarren zatiko bolada batzuetan. Penalti eta penalti bikoitz bidez iritsi ziren golik gehienak. Nere Lersundik –birritan– eta Amagoia Ayestarenek sartu zituzten golak Durangoko taldearentzat. Azken minutuetan jokalaria bat gutxiagorekin geratu ziren, baina aurretik hartutako errentari eutsi zioten. ■ J.D.

Dudako penalti baten bidez kanporatu zuen Barakaldok Iurretako

Kulturalak bihar finalerako txartela eskuratu dezake, Zornotzaren kontra

Derrigor behar du garaipena Elorriokok

Bost jaitsiko dira eta Elorrioko Buskantza azken hirugarren dago B Goren Mailan, jardunaldi biren faltan. Beraz, etzi etxean jokatu duen San Jorgeren kontrako partiduan hiru puntuak behar ditu, nahitaez. San Jorge bigarren dago sailkapenean, baina dagoeneko aurtengo denboraldian egin beharrekoak egin ditu. Ez du ezer jokoan.

Egoera kezagarria da, baina mailari eusteko borrokan talde asko daude, eta hori alde dute. Bere aurretik dauden lau taldeak hiru punturen barruan daude (Erandiotarrak, Meatzari, Goiz-Argi eta Soloarte B). Azken jardunaldian Soloarte Bren kontra jokatu dute. Aukerak badituzte partidu intentsoa izango da.



Astola Klubeko gaztetxoak urteroko hitzorduan batu ziren igerilekuan

Gaztetxoaren artean igeriketa sustatzeko, Astola Klubak igeriketa inguruko topaketa antolatu zuen. Abadiñokoez gainera, Durangoko, Zornotzako eta Etxebarriko gazteak etorri ziren. Ekitaldi berean, Alain Arrizabalaga uretako motor gidaria omendu zuten munduko txapeldun geratu delako Freeride modalitatean.

Iker Saenz de la Cuesta
• Areto-futbol entrenatzailea



Amaierara arte lehiak

Liga bukatzeaz dago, eta gure taldeak azkenera arte borrokan dabil. Bakotzak bere borroka dauka, baina denek daukie denboraldia zapore onagaz amaitzeko guria.

Bigarren Erregionalean, Durangaldeko taldeek ezin izango dabe laugarren postutik pasatu, eta horreentzat liga amaitu da. Datorren denboraldian pentsatzen hasi beharko dabe.

Lehenengo Erregionalean denboraldi aparta egiten dabilz, geure taldeen oztopo bakarra izan den Ituriondo B "atzeritar" taldearen baimenagaz, lehen postua ia segurtatuta dauka-eta. Joan den asteburuan Mallabiak pauso polita emon dau bigarren postua lortzeko, Abadiño Laguni (hirugarren sailkatua) irabaziz.

Preferentean Kurutziaga hirugarren postua lortzeko ahaleginetan dabil, eta oso gertu dauka sari hori. Elorrioko, aldiz, egoera latzean dago, puntu preminan; aurtengo bost taldek galduko dabe maila eta hortik ihes egin beharrean dago.

Bestalde, azpimagarria da Sasikoako bi taldeek egindakoa. A taldeak liga irabazi dau asteburu honetan, Ancla Dosanporri 5-2 irabaziz, eta datorren urtean Nazional A-n jokatu dau. B taldeak azken jardunaldietako porrotek igoeratik aldendu dabe. Zorionak, Sasiko!

Kulturalako neskek liga bigarren amaitu eta gero Kopako finalerdietarako sailkatu dira, eta Beti Arinen kontra borrokatu behar. Athleticcek legez "Gabarra" aterako dogu Ibaizabalera?.

Zortea guztiontzat.

Aramotz mendilerroan zehar lasterketa etzi



300 lagunek parte hartuko dute lasterketan.

III. Aramotz Mendi Lasterketa korrituko da etzi Urkiolako Parke Naturaleko inguru zoragarrietan zehar. Lasterketa Zornotzan hasiko da 09:00etan eta, 27 kilometro egin eta 1.600 metroko malda positiboa gaindituta, Zornotzan bertan helmugaratuko dira parte-hartzaileak.

Korrikalariak Aramotz mendilerroko Leungane (1.006 metro), Belatxikieta (662 metro) eta Inungane (606 metro) tontorak igoko dituzte, Arratia eta Durangaldea artean dauden

kareharritzko inguru ederrak zeharkatzen dituzten bitartean. Zornotzatik irtenda 'El Cabrero'-ko bidea hartuko du lasterketak, Aramotzeko mendilerroan sartu aurretik. Mugarrekolandan (768 metro) buelta hartu eta Zornotzarantz abiatuko dira. ■ J.D.

Zornotzan hasiko da, 09:00etan, eta toki berean amaituko da

Euskadiko Kopako finala du bihar DRTk Mungia-Kakarraldoren aurka

Finala Plentzian jokatzea onartu dute, Kakarraldo sortu zeneko 25.urteurrena delako



Orain aste bi irabazi egin zioten Mungia-Kakarraldori. K.Aginako

Quad-aren inguruko jaia ekainean Matienan

Nazioarteko gidari onenak batuko dira; quad-zaleen topaketa ere antolatu dute

Endu-Quad Abadiño Motor Clubak quada oinarri duen jaialdia antolatu du ekainaren 20an eta 21ean Matienan. Nazioarteko Openagaz batera, quada ezagutzera emateko ildo askotako ekintzak prestatu dituzte Inyeta-metal enpresaren atzealdeko -trenbidearen aldetik- lurretan egokitutako zirku-trean eta Traña-etxoste kaleko standetan.

Sektoreko markarik onenen produktuak ikusgai izango dira

Lehiari dagokionez, iaz Euskadiko Txapelketa antolatu zuten eta aurten Nazioarteko Opena egingo dute, erakustaldi modura. Munduko talderik onenak etorriko dira; tartean, Euskadiko txapelkunak. Ildo beretik, Quad-cross Opena ere badago. Modalitate honetan jauzi ikusgarriak egiten dituzte pilotuek. Txapelketarako puntuagarria ez den

arren, goi mailako gidariek parte hartuko dute.

Quadzaleen topaketa
Urtero estatuko quadzaleen topaketa bat egiten da. Jaialdiaren harira, aurten Matiena aukeratu dute. Topaketak oso baliagarriak dira elkar ezagutu eta esperientziak banatzeko.

Helburua jaialdia denentzako erakargarria egitea da. Ildo horretatik, egun bietan Erdi Aroko Azoka egingo dute Traña-etxoste kalean, mota guztietako standekin: gozogintza, okintza... Horrez gainera, 40 standetan banatuta, quadaren sektoreko markarik onenen produktuak ikusgai izango dira. Azkenik, inguru berean umeentzako jolasak antolatuko dituzte. ■ J.D.

Erdi Aroko Azoka eta umeentzako jolasak aurreikusi dituzte

Euskadiko Kopan esperantza handiak jarrita zituzten eta usainenak ez die hutsik egin. Durango Ilarduyak finala jokatu du Mungia-Kakarraldoren kontra, bihar 17:00etan, Plentzian. Aurten Kakarraldo sortu zeneko 25. urteurrena betetzen delako jokatu dute han.

Lehen eta bigarren taldeko jokalariek osatuko dute finala jokatu duen taldea

Sailkatze fasea berezi samarra izan da. Gernikak parte ez hartzeak mesede egin die talde guztiei. Getxo mailaz jaitzi da eta normalean baino talde ahulagoa ekarri du; hor ere kexarik ez besteen aldetik. Horrez gainera, DRTk jokatu behar zituen partiduetatik erdiak jokatu ditu: lautik bi. Izan ere, taldea osatu ezinda ibili dira klub batzuk. Jokatu dituzten bietatik bat irabazi (Gaztediren kontra) eta bat galdu dute (Hernaniren aurka). Jokatu gabekoetan garaipena Durango Ilarduyarentzako izan da.

Taldeak sasoi puntu onean dago, nahiz eta liga amaitu zenetik entrenamenduak arindu dituzten. Bigarren taldeko hainbat jokalarik talde nagusiarekin jokatu dute, eta nahasketak emaitza

ona eman du. Kopako partiduak datorren denboraldirako taldea egituratzeko ere balio dio Aratz Gallastegi entrenatzaileari.

DRT faborito
Durango Ilarduyak Mungia-Kakarraldok baino maila bat gorago jokatzen du. "Erritmo aldetik hobeto gaude. Kontzentrazioa mantendu eta hutsik egiten ez badugu, maila bien artean dagoen aldea igarri beharko litzateke", uste du Gallastegik.

Beraz, Durangoko taldea faborito izango da. Horrek ez du esan nahi partidu erraza izango denik. Aurten birritan jokatu dute elkarren kontra. Lehenengoan, aurre-denboraldian jokatuakoa, Mungia-Kakarraldok irabazi zuen; orain bi aste jokatuakoa bigarrenean gureak nagusitu ziren.

Nagusiak ez dira Kopako konpromisoak dituzten bakarrak. gazteek bihar 12:00etan Bizkaiko Kopako partidua jokatu dute, etxean, Independiente Unibersitario Bilbaoren kontra. Kadeteek, berriz, Getxoren kontra jokatu dute kanpoan. ■ J.D.

Aratz Gallastegi:
"Erritmoari dagokionez eurak baino hobeto gaudela uste dut"

Zaldi Baltzak eta Abadiñok derbia dute Bizkaiko Kopan


Xakean Bizkaiko Kopako bigarren kanporaketan aurrez aurre izango dira bihar Elorrioko Zaldi Baltza eta Abadiño xake taldeak. Irabazten duena final-laurdene-

tara igaroko da. Abadiñok oso erraz menderatu zuen Getxo (7-1). Elorrioko taldeak, aldiz, latz sufritu zuen Torres Quevedo kanporatzeko (4,5-3,5).

Durangoko Larrasoloeta Xake Taldeak ezin izan zuen lehen kanporaketa gainditu. Sestao Naturgasek oso talde indartsua du, eta 7,7-0,5 irabazi zion Larrasoloetari.

SAILKAPENAK

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak		Saskibaloia / 1. maila / Jaitziera Fasea / gizonak		Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak	
1- Amurrio.....	70	15- Kulturala.....	43	1- Bera Bera.....	24 (+501)
2- Lagun Onak.....	70	16- Eibar B.....	41	2- Ardoi.....	24 (+277)
3- Portugalete.....	70	17- Ordizia.....	39	3- Abaroa.....	24 (+308)
4- Elgoibar.....	67	18- Zarautz.....	39	4- Gernika.....	22 (+363)
5- Beasain.....	67	19- Alaves B.....	32	5- Tabirako.....	19 (+245)
6- Basconia.....	56	20- San Ignacio.....	19	6- Atletico SN.....	19 (+63)
7- Gernika.....	53			7- Getxo.....	19 (+85)
8- Zamudio.....	49			8- Obenasa.....	18 (+86)
9- Laudio.....	47			9- Arabako EHU.....	16 (+42)
10- Leioa.....	47			10- Irlandesas.....	11 (-262)
11- Santurtzi.....	46			11- Un. Navarra.....	10 (-90)
12- Zalla.....	46			12- Easo.....	9 (-269)
13- Arenas Getxo.....	46			13- Las Gaunas.....	9 (-287)
14- Amorebieta.....	45			14- Artieda.....	9 (-188)
				15- Astigarraga.....	4 (-456)
				16- Deusto-Loiola.....	3 (-418)



Durangoko Kulturalak 44 gol sartu eta 49 jaso ditu denboraldian

Agenda

FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Kulturala - Amurrio
Zapatuan, 18:00etan, Tabiran
LEHEN ERREGIONALA
(gizonak)
Iurretako - Lekeltio
Zapatuan, 18:00etan,
Larrakozelain
BIGARREN ERREGIONALA
(gizonak)
Elorrio - San Juan
Zapatuan, 16:00etan,
Eleizalden

ARETO-FUTBOLA
BZIKAIKO KOPA
(emakumeak)
Durangoko Kulturala - Beti Arin
Zapatuan, 16:30ean,
Elorrioko kiroldegian
OHOREZKO B MAILA
Elorrioko Buskantza - Laskorain
Zapatuan, 18:00etan,
Elorrioko kiroldegian
EUSKAL LIGA
Sasikoa - La Bellota
Zapatuan, 18:00etan,
Landako kiroldegian
GOREN MAILA
Elorrioko Buskantza B-San Jorge Santurtzi
Domekan, 12:00etan,
Landako kiroldegian
LEHEN ERREGIONALA
Abadiño Gaztetxe - Colegio Vizcaya
Zapatuan, 15:10ean,
Elorrioko kiroldegian
Abadiño Lagun-Derio
Zapatuan, 17:00etan,
Berrizko kiroldegian

SASKIBALOIA
LEHENENGO MAILA
(jaitziera fasea-gizonak)
Tabirako Baqué - Urdaneta
Zapatuan, 18:00etan,
Landako kiroldegian
LEHEN ERREGIONALA
(gizonak)
Anbotopeko - Romoko Ezkorak
Zapatuan, 18:00etan,
Durangoko kiroldegian
Tabirako Baqué - Leloa
Zapatuan, 16:00etan,
Landako kiroldegian

PILOTA
BIZKAIKO HERRI ARTEKOA
Durango - Markina (zesta) Zapatuan,
18:00etan / **Durango - Zeanuri (pilota)** Barikuan,
20:00etan, Jai-Alai frontoian

IRAGARKIAK

LANA

-Eskaerak
-Eskaintzak
ETXEBIZITZAK

-Salgai
-Errentan eman
-Errentan hartu
-Pisua konpartitu
IRAKASKUNTZA

-Klaseak hartu
-Klaseak eman
MOTORRA

-Salgai
-Erosi



LOKALAK

-Errentan eman
-Errentan hartu
ANIMALIAK

-Salgai
-Erosi

BESTEAK

-Berba egin
-Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotako-ak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali ANB (tartea) eta zure iragarkia 7789 zenbakira. Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ
- Deitu 94 621 79 02 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

Asteazken arratsaldean portalak garbitzeko prest nago, baita gauez tabernak garbitzeko ere. Tel.: 637 055 978 (Esti).

Emakumea etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Tel.: 607 086 090

Durango neska umeak, etxeko lanak egiteko eta dendari lanetarako prest. Tel.: 639 036 653

Goizean lanaldi erdiz lan egiteko prest nago, nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko. Erreferentziekin. Tel.: 650 610 194

Autonomo eta enpresa txikientzako aholkularitza: zergak, kontabilitatea, fakturazioa...Tel.: 655 725 252

Eraikuntzan, margolari laguntzaile moduan, lorezaintzan edo arotz moduan lan egiteko prest nago. Tel.: 696 356 551

Nagusiak zaintzeko prest nago, interina moduan edo kanpotik etorrita. Erreferentziekin. Tel.: 650 102 636

Interina lez edo kanpotik etorrita lan egiteko prest nago: nagusiak eta umeak zaintzeko edo tabernen garbiketarako. Orduka ere lan egingo nuke. Tel.: 680 302 861

Argazkilari esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperientzia lantegietan, zerbitzari bezala, umeekin... Tel.: 647 008 625

Emakumea geriatriko laguntzaile lan egiteko prest. Sukaldaritza eta informatika ikastaroak egindakoa. Tel.: 690 201 367

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altxariekin, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua). Tel.: 678 836 050

Elorrio. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, estudioa eta trastelekua. Guztiz berriztua, oso eguzkitsua eta polita. Tel.: 617 787 165

Durango. Pisua salgai. Berriztatutako etxebizitza, estreinatzeko prest. Kanpora ematen du eta berogailua du. Ikuspegi ederrak. 60 m², 2 logela, bainugela eta egongela altzariz hornitutako sukalde amerikarrekin. 2 balkoi. Aparkaleku partikularra. 246.000 euro. Tel.: 635 727 937

Torreveja erdialdean, logela bateko apartamentua salgai. Sukalde frantsesa eta klimatizadorea. Los Naufragos hondartzatik 10 minutura. 63.000 euro. Tel.: 675 710 536

Elorrio. Baserrira salgai, bi etxebizitza eta txokoa ditu. Etxebizitza bat guztiz berriztua, bestea erdizka. Txabola eta 6.000 m²-ko lursaila ere baditu. Tel.: 677 502 803 edo 699 846 219

ERRENTAN EMAN

Pisua alokagai udarako Torrevejan. Bi gela, sukaldea eta egongela, terraza handia eta garajea ditu. Hondartzatik oso gertu. Tel.: 645 716 847. (Rosi)

Otxandio. Lagun bat edo birentzako etxebizitza alokagai. Apartamentu berria da. Tel.: 605 773 721

Conilen etxebizitza bat alokagai. 3 logela, 2 komun, garajea eta igogailua. Tel.: 653 733 457

Conilen etxe berria alokagai. 2 logela, komuna, sukaldea, jardina eta barbakoa. Zonalde oso lasaia. Tel.: 600 596 538

Pisua alokagai Errioxan, San Vicente de la Sonsieran. Bi gela, egongela, sukaldea, bainugela eta terraza ditu. Bista onak ere baditu. Tel.: 657 734 019

ERRENTAN HARTU

Elorrio. Garaje bat behar dut alokairuan. Tel.: 658 739 583

Abadiño. Alokatzeko pisu bila gabilza Zelaietan. Tel.: 699 295 914

IRAKASKUNTZA EMAN

Autodefentsa klaseak ematen ditut. Norbere segurtasuna eta konfidantza lantzeko. Bakarka edo taldea. Adin guztietako jendearentzat, ordutegi irekian. Tel.: 610 697 412. (Belen).

MOTORRA SALGAI

Fiat Tipo salgai. 100.000 km ditu eta 600 euroan saltzen dut. Tel.: 665 738 563. (Joseba).

Renault Megane salgai. 2007ko abendukoa. Beltza da eta bost ate ditu. 2009ko abendua arte berme ofizialarekin. Dieselak. 15.000 euro. Tel.: 655 712 105

Ford Galaxy 1900 tdi salgai. 130 zp, 2004ko maiatzekoa. 95.000 km. 7 jesarleku, 17-ko llantak, gupil eta amortiguadore barriak. Margotu berria. Tel.: 636 339 971

Fiat Punto 1.200 salgai. Gasolinakoa. 1995 urtekkoa da. 750 euro. Tel.: 667 746 645

ANIMALIAK SALGAI

Alemaniar artzai-txakur kumeak salgai. Pedigreedunak, ikusgarriak. 350 euro. Tel.: 655 749 239

Border Collie txakurkumak salgai. Tel.: 627 417 822

Poney zuri-beltza eta behor beltza salgai. Izaera onekoak zelairako. lurretan. Prezio merkea. Tel.: 686 915 282

OHARRA

Eroski Moviak ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOK, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

LANA

ESKAERAK

Abadiño. Arratsaldetan lan egiteko tabernaria behar da. Kontratua eskaintzen da. Esperientzia eta autoa izatea baloratuko da. Tel.: 646 804 999

ASEBI erakundeak bolondresak behar ditu. Parte hartzea eta laguntzea gustuko duenak izena emon dezala. Tel.: 94 447 33 97 / 685 782 365. E-mail: asebi@telefonica.net. Sancho Azpeitia kalea, 2 behe, 48015 Bilbo.

Pertsona bat behar da umeak zaintzeko, goizeko 07:30etik 11:30era. Umeak eskolara eramateko eta etxeko lanak egiteko. Kotxea derrigorra da. Tel.: 660 723 602

Durango. Etxetresna elektrikoan denda berrian lan egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 943 77 13 52

Durango. Abokatua behar da gai zibil eta penalak eramateko. Derrigorra da

Zuzenbidean lizentziatua izatea, esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 2.765. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durango. Zerbitzaria behar da jatetxe batean mahaia zerbitzatzeko. derrigorra da esperientzia izatea, kotxe karneta eta kotxe propioa izatea, eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 2.823. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Iurreta. Administrazio laguntzailea behar da. Derrigorra da alemaniera menperatzea (idatziz eta hitzez), kotxe karneta eta kotxe propioa izatea, informatikako eta kontabilitateko ezagutzak izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 2.871. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durangaldea. Gasteizko enpresa batek gaztelera, ingelesa eta hinduaren interpretea behar du eskualdean aritzeko, Durangaldeko enpresa bateko langile eta indiar talde baten artean interprete-lanak eginez. Derrigorra da hindua menperatzea edo han jaioa izatea, ingelesa eta gaztelera jakitea be bai. Komenigarria litzateke esperientzia izatea antzeko lanetan. Erreferentzia: 3.092. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Berriz. Informatika-aplikazioen programatzailea behar da, gestio aplikazioen inguruko ardura hartzeko. Derrigorra da arcgis eta .net-en esperientzia izatea. Lanaldi osoan eta frogia epean, luzatzeko aukerarekin. Berehala hasteko. Erreferentzia: 3.117. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Ileapaintzailea behar da, ohiko funtzioetarako. Derrigorra da arloan formazioa izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 3.293. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da: instituzio, garbiketa enpresetan... produktuak aurkezteko komertzial postuan aritzeko. Derrigorra da esperientzia izatea, karneta eta kotxea izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 3.432. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Abadiño. Zenbaki-kontroladun fresatzeko makinarako operadorea behar da. Derrigorra da bi urteko esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Frogia epean, luzatzeko aukerarekin. Erreferentzia: 3.517. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Abadiño. MIG-MAG soldatzailea behar da. Derrigorra da urte bateko esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Frogia epean, luzatzeko aukerarekin. Erreferentzia: 3.519. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Aseguru-merkataria behar da. Derrigorra da ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. LH edo diplomatura eginda izatea beharrezkoa da, baita esperientzia izatea ere. Erreferentzia: 14.113. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

ESKAITZAK

Neska umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko edo etxeak garbitzeko prest. Tel.: 639 847 627.



Txakurkumak salgai, Mastin arrazakoak. Tel.: 94 681 50 37

Asto arra salgai. Urte bi eta erdikoa da. Paperak ditu. Prezio onean. Tel.: 656 772 994

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Durango. Tastelekua alokagai. 15 m2 ditu eta merkea da. Tel.: 629 415 416

BESTEAK

SALGAI

Akordeoia. Paolo Soprani 96 baxua. Tel.: 665 738 563. (Joseba).

Karro denda salgai. Oso ondo hornitua eta zaindua. Tel.: 658 759 264. Ima.

Soinu mahaia salgai. ECLER MAC 2-4 markakoa. 100 euro. Tel.: 94 682 08 30

Bilbao BBK Live-erako 3 egunetako 4 bono salgai. 120 euro bakoitza. Tel.: 660 085 720

Lur-saila. 42.000 m2-ko basoa salgai. Oriol mendiaren azpian. Tel.: 600 313 200

Lur-saila. 13.500 m2ko lur-saila salgai Zaldibarren. Eraikitzeko aukerarekin. Prezio onean. Tel.: 629 419 411

Sutarako pago eta haritz egurra. Edozein neurritan salgai. Etzerako bidalketa. Tel.: 644 194 722

Oilagorretarako eskopeta. H Zabala-Vencedor modeloko paralela. 60 zm-ko kainoia. Eskuma estriatua eta ezkerre lisua. Berri-berria. Tel.: 622 266 911

Lur-saila. Zornotzako Larrean lur-saila salgai. Laua, uragaz eta bideagaz. Argindarra bertan. Oso polita, errekagaz. Tel.: 94 622 51 75

Mendiko bizikleta. 2008ko dirt jumpeko scott voltage yz. Oso egoera onean (behin erabilia), 475 eurotan. Tel.: 655 706 713

Mendiko bizikleta. 2008ko scott gambler fr10 (DH/free ride). Oso egoera onean (goitik behera berriku-sia). 2.375 eurotan. Tel.: 655 706 713

Trikitixa. 1.000 eurotan. Tel.: 687 281 981 (Iñaki)

EROSI

Basoa. Lur zati bat erosiko nuke Durangon edo Durango aldean. Ez zait axola txikia izatea edota leku ez oso erosoa egotea. Tel.: 676 685 052 eta 660 369 973

Egoera oneko CD erreproduzitzailea erosiko nuke.Tel.: 625 92 10 57

BEREZIAK

'Bertoko' garagardoaren txapa erosi edo aldatzeko prest nago. Norbaitek izanez gero deitu. Tel.: 695 452 194

CD erreproduktore baten bila nabil. Egoera onean. Tel.: 625 921 057

Biolin eta biolontxelo taldea ezkontze-tan jotzeko prest. Errepertorioa aukeran eta prezio onean! Tel.: 635 746 176

Munduko garagardo ezberdinen botilen txapa bilduma osotzeko txapak aldatzen ditut. Tel.: 695 452 194

Poltsikoko egutegiak badituzu, edo bildumak egiten badituzu deitu zerbaki honetara. Tel.: 665 718 061

Atxondo. Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala. Tel.: 618 608 908

Dantzariak ezkontza eta ospakizunetan aritzeko prest daude. Txalapartariak eta trikitilariak ere gehitu daitezke. Tel.: 617 084 902

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30etik aurrera. Tel.: 945 46 14 67 edo 615 723 077

Eskuko desbrozadorarekin garbiketak egiten ditut. Orduko kobratzen dut. Tel.: 619 552 202

Txistularia eta dantzaria eskaintzen dira ospakizunetan Agurra egiteko. Tel.: 605 732 108 edo 657 776 469

Desbrozadorarekin garbiketak egiten ditut.Orduko kobratzen dut. Tel.: 650 181 443

Denetariko margogintza artistikoa egiten dugu. Altzarien eraldatzea, margolanen erreprodukzioa eta marrazkiak zurezko zoruetan, bestek beste. Tel.: 678 704 197

Ezkontza edo antzeko ospakizunak musikatzea nahi badozu deitu zerbaki honetara: Tel.: 605 744 945

Fardoak. Fardoak egiten ditugu. Interesatuak deitu dezala ondoko telefono honetara: Tel.: 615 782 247

Gortinak, koltxak, etxeko osaga- rriak... josten dira. Etxeko arropen konponketak ere egiten dira. Partikula- rrentzat . Tel.: 675 707 275

INMOBILIARIAK

Fernando Uribe

Barrenkalea, 15 - bajo • Telf. y Fax: 94 681 64 23

48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamentu berriak eraikitzen.
- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen.
- Erretentxu: Txalet bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatuak. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarreko etxea lursailarekin.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz berriztuta)
- Kirikiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalea: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz berriztuta eta erdi jantzia)
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Mikeldi: Halla, egongela, sukaldea, egongela eta komuna.
- Herriko Gudari kalea: Halla, egongela-jangela, sukalde-jantoki, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Iparraguirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Terraza. Trastelekua eta 2 kotxerentzako garajea.
- Monago Torren: Halla, egongela-jangela, 3 logela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- Murueta Torre: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plaza: Halla, egongela, sukaldea, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Frantzisko: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. 2 balkoi eta trastelekua.
- San Ignazio Auzunea: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Agustinalde: Apartamentu berriak salgai.
- San Fausto: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna.
- Sasikoa: Halla, egongela, sukalde-jantokia jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara. Jantzia.
- Tronperri kalea: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Jantzia.

Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO

Tel./Faxa:94 681 66 66 inmobisd@euskalnet.net

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Durango: 105 m2. 42 m2-ko terraza. Berrikuntza askorekin. 16 m2-ko garaje itxia. Bizitzen sartzeko prest.
- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 162.000+BEZ
- 2 logela garajea eta trastelekuarekin 224.000+BEZ
- 3 logela garajea eta trastelekuarekin 353.000+BEZ
- 4 logela garajea eta trastelekuarekin, kontsultatu.
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa.
- Berriz: Familiabakarreko etxebizitzak eraikitzen. 1.000 m2-ko lursaila.
- Zornotza: Erdialdean. 2 logela berriztatzeko.
- Elorrio: 2 eta 3 logelako etxebizitza ezberdinak.
- Iurretza: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Matiena: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Durangaldea: Baserri eta txalet ezberdinak, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurretza...
- Durangaldea: Lokal komertzialak. Aukera zabala
- Durangaldea: Pabilioi ezberdinak salgai eta alokairuan.
- Mañaria: Etxebizitza erdi berria bizitzen sartzeko prest.
- Mañaria: Etxebizitza berriak estreinatzeko.
- Zaldibar: Lur saila salgai. Eraikitzeko aukera.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa.Ezin-hobea.
- Zabale: 90 m2-ko etxebizitza polita. Garajea eta ganbara. Eguzkitsua.
- Madalena: 135 m2-ko etxebizitza. 4 logela, egongela, jangela, sukaldea, despentsa, 2 komun eta bainugela. **Balkoia.** 2 ganbara eta garaje bikoitza itxia.
- Herriko Gudarien kalean: 135 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Oso eguzkitsua. **TERRAZA** handia. Garajea eta trastelekua.
- Tronperri: Ezin-hobea. 3 logela, egongela, sukalde berria jantzia eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Prezio onean.Bizitzen sartzeko prest.
- Murueta Torre:Leku-aldatzea dela eta etxebizitza ezin-hobea saltzeko premia. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. **Balkoia.** Garajea eta trastelekua.
- Landako-Txibitena: 2 eta 3 logela.
- Txibitenan: 3 logela, egongela, 3 komun, sukaldea eskegitokiarekin. **Balkoia.** Garaje aeta trastelekua.
- Tabira: Beheko solairua. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 70 m2-ko lorategia. Garaje itxia.
- Andra Mari : Neurri ezberdinetako apartamentuak. Bulego, kontsultentzako egokiak.

Fray Juan de Zumarraga, 4. 48200 Durango

Tel.: 94 681 40 40

ERAIKUNTZA BERRIAK

- Durango: ETXEBIZITZA BERRIAK SALGAI. Terrazarekin.
- Zaldibarren: 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak. Etxebizitzak garajearekin eta trastelekuarekin.Guztiz jantziak. 138.000 -tik aurrera.
- Ermodo kalean: Eraikuntza berria. 105 m2. Guztiz kanpora ematen du. Ganbara, garajea eta trastelekua.
- Tabiran: Promozio berria. Luxuzko etxebizitzak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Artzetagan kalean: Apartamentu berria, garaje eta trastelekuarekin. Bizitzen sartzeko prest.
- Askatasun Etorbidea: 2 eta 3 logela. 2 komun eta egongela. Garaje aeta trastelekua.
- Mendizabalena: 2 logela eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Erdi berria.
- Mikeldi kalean: Apartamentu berria. 204.300 .
- Antso Eztegiz: 3 logela eta 2 komun. Aukera ona.
- Trenbide kalean: Atikoa. 3 logela. Guztiz berria. 216.000 .
- Urkiagatorre kalean: 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekua. 192.000 .
- Andra Marin: Apartamentua. 162.000 .
- Komentu Kalean: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
- Murueta Torren: 90 m2. Berria. 3 logela. Terraza. Ganbara eta garajea. Aukera ona.
- Plateruen Plazan: Pisu altua. Erdi berria. Egongela beheko suarekin. Garajea eta trastelekua.
- Durangon: Txaleta. Estreinatzeko. 410 m2,4 solairutan banatuta. Lorategiarekin.
- Iurretza: 2 logela. Igogailuarekin. 198.300 .
- Abadiño: Feria lekuan. 90 m2. 3 logela.
- Iurretza: Baserria. Guztiz berria. 3 solairu. 2000 m2-ko lursaila.
- Abadiño: Txaleta. Bifamiliarra. 300 m2-ko lorategia.
- Matiena: Pabilioi berria. 400 m2. 10 m2-ko altuera. (Eroski ondoan).

ETXEBIZITZA ALOKAIRUAN

ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN 550 -TIK HASITA.

San Agustinalde, 4 - 1 Esk.DURANGO

TF.: 94 681 35 62 email: amboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Apartamento berriak eraikitzen.700  hilero.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak. 172.000  -tik hasita.
- San Inazio Auzunea: Berriztatu berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Bolivar: 2 eta 3 logelako etxebizitza berrien eraikuntza. Garaje itxiak.Durangotik 15 minutura. 174.000  -tik hasita. ORDAINKETA MODUAK NEGOZIATZEN DIRA.
- Barrenkale: Azkeneko apartamentuak eta duplexak. Eraiki berriak.
- Franzisko Ibarra: Logela bakarreko apartamentua. Garaje eta ganbara. Berriztatuta.
- Askatasun Etorbidea: 125 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.
- Fray Juan de Zumarraga: 2 logela, sukalde-jantokia, egongela txikia eta komuna. Despentsa.
- Juan Antonio Abasolo: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Prezio interesgarria.
- Zubiaurre: 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta garaje itxia.Guztiz berria.Estreinatzeko.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiare- kin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

MATIENA-ABADIÑO

- Txinurrisolo: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.

JAKA

- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trastelekua. Ia berria. Estreinatze- ko.

DENPORAPASAK>

HITZ GEZIDUNAK >

	* Irudiko hegaztia	▼	Berritsu	▼	Zolia denaren ezaugarria
	Hegan		Azkon		
	▶		▼		▼
	Errepika	▶			
Trauma sortzen du	Ospe	▶	▼		
	Elkarlanak				
Itsatsi		▼			
▶					
Utzamako herria	▶			Kanpo, landa	▶
Denbora luzean				Orioko	
▶				▼	
Molibdeno a	▶		Kolore mota	▶	
Basati			Nafarroako udalerria		
▶			▼		Uranioa
▶					Arabako natur parke
... gabe, atertu gabe	▶			Zangoaren atal	▶
Diru eragiketen multzo				Galdetzaile bat	▼
▶				▼	
Uretarako ontziak	▶				
Soka					Bokala
▶					▼

SUDOKU >

1			8	7	9		3		
1		3	8				2		6
9		4	2					5	
	1	7		6					
		6	1		2	9			
5		2	4	3					8
						5	7		
7	2	9							
3	8		9		1				4

2			1	4			8		2
7									
			2				4	1	
5		9			8				
	1				5				
			3		7	9		6	
	6	8		9		1			
	7	5		6		4	3		
1							6		

HOROSKOPOA >



Aries
marxoak 21 - apirilak 20

Arazoak, tentsinoak, buruhaus-teak... lantzean behin arazo horreetatik ihes egiteko giltza topatu beharko zeunke.



Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20

Zu eta erlojua ez zarie lagun handiak, ezta? Ingurukoak kexatuko jatzuz azkenean, puntuala izatea lotzen ez badozu!



Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20

Ez dau merezi beldurtuta bizitzeak; zure egunerokoa baldintzatu baino ez dau egiten sentsazio horrek. Izan ausarta datozen egunetan.



Cancer
ekainak 21 - uztailak 20

Urte hasierako promesak ez dira betetzen, denpora pasatu ahal. Benetan egindakoak ete ziren?



Leo
uztailak 21 - abuztuak 23

Gauetz itzarrik eta egunez lo. Kafeak ez deutsu onik egiten; beraz, hasi zaitez eguneroko dosia txikitzen gaurtik aurrera.



Virgo
abuztuak 24 - irailak 23

Zein da zure helmuga? Zer norabide hartu dozu bizitzan? Erabaki garrantzitsurik hartu baino lehenago, argitu kontu horreek.



Libra
irailak 24 - urriak 23

Barriro be min berbera. Ez itzi min horri barrua jaten, eta gogor egin behin betiko desagertzeko. Animo aste honetan!



Scorpius
urriak 24 - azaroak 23

Zure pekatuak abadeak be ez deutsuz parkatuko! Izan zaitez apur bat zintzoagoa, gitxienez, aste honetan zehar.



Sagittarius
azaroak 24 - abenduak 23

Esandako moduan, malkoa ez dozu urrin izan Athleticagaz. Taldea hainbeste maitatzea normala da? Dena ez da futbola mundu honetan.



Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20

Aste honetan, goizetan ez erabili igogailua eta eskaileretatik jaitsi zaitez. Bueltan be gauza bera egin. Ez al zenduen argaltzea gura?



Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18

Ingurukoek be lagundu ahal deutsue bidea argitzen. Ez itzi arazoak barruan, zeuretzako.



Piscis
otsailak 19 - martxoak 20

Ahoa josita daukazula emoten dau. Ala mingaina jan deutsue? Berba egitea beharrezkoa da gura dozuna lortzeko.

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Santa Ana 6, 48200 durango



Eguaztenean, maiatzaren 13an, **Araitzek** bost urte egin zituen. Zorionak eta mosu handi-handi bat. Aupa Athletic!



Zorionak **Euri**, etxekoen izenean. Aurrerantzean hiru urtetxo eroan beharko dozuz aldean. Ondo-ondo zaindu eta ez egizuz galdu.



Josu Belarrek maiatzaren 13an 10 urte egin zituen. Zorionak Uxueren partez, eta ondo-ondo pasatu daizula bihar.



Zorionak etxeko printzesari maiatzaren 16an 4 urte egitearren. Ondo pasatu eguna, **Amets!** Mosu bat Joseba eta gurasoen partez.



Paule, maiatzaren 17an zortzi urte egingo dozuzenez, familia osoak zoriondu gura zaitu. Mosu handi bat David eta gurasoen partez.



Elorrioko **Libe Basabek** maiatzaren 12an 5 urte egin zituen. Zorionak familiaren partez, eta eskerrik asko merienda ederragaitik.

SOLUZIOAK

V	I	R	R	A	K	O	L
•	K	V	O	N	K	•	
V	Z	L	N	V	N	I	F
N	I	O	•	I	V	L	•
U	•	I	V	B	T	V	S
S	I	R	G	•	O	M	•
V	R	O	R	V	Z	U	T
L	V	•	V	Z	U	V	•
I	K	I	X	L	V	R	E
T	V	Z	L	I	•	L	•
O	T	E	T	•			
Z	V	G	E	H			
•	K	•	B	•			

4	2	9	1	6	5	8	3
3	1	5	8	4	9	6	7
6	8	7	5	2	3	1	4
8	9	1	6	5	4	2	7
5	6	7	8	1	9	3	4
2	3	4	6	9	5	7	1
7	5	8	1	2	4	9	6
9	6	7	4	5	8	3	1
1	3	4	1	9	6	7	5

6	9	5	4	8	7	3	2
8	3	4	2	9	1	5	6
7	2	1	3	6	5	8	9
9	5	6	7	1	3	4	8
3	8	2	5	4	6	7	1
4	1	7	8	2	9	6	5
1	4	3	6	7	2	9	5
5	6	9	1	3	8	7	4
2	7	8	9	5	4	1	6

EUSKO LABEL >

Gorabehera handirik bako urtea
Eusko Labeldun produktuentzat

Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior

Oro har, 2008a gorabehera handirik bako urtea izan dela esan geinke, Kalitatea Fundazioaren datuen bilaka-

erari jagokonez. Eusko Labela daukien produktuen emaitzak oso desberdinak izan dira produktu baktaxaren arabera; udabarri hotz eta euritsuak kalte egin deusie landare-jatorriko produktuei (Arabako Patata, Ibarako Piparra eta Gernikako Piperra), eta horreen ekoizpenak nabarmen egin dau behera.

Produktu guztien artean, Eusko Labela daukan okelaren bilakaera azpimarratu behar da. Produkturik garrantzitsuenak da, pisu ekonomikoaren eta ekoizle-kopuruaren aldetik, eta produktu ziurtatuaren bolumenak %5 egin dau gora. Datu ezin hobea da, kontuan izanik kontsumo-joerak kontrako noranzkoan doazela.

Bestalde, merkaturatutako azken Eusko Label produktua merkaturatzen lortzen dabilen arrakasta aipatu behar da. Izan ere, Euskal Baserriko Arrautzaren merkaturatze-datuak bibidertu egin dira 2007 urtearekiko, eta 2 milioi arrautzatik gora merkaturatu dira.

Bilakaera negatiboa izan daben produktuen artean, Hegaluzea eta Hegalaburra dau-

kaguz. Arrantzak izan dauen urte txarrak Eusko Labela daukien arrainen artean be eragina izan dau: %20ko jaitsiera. Bilakaera ezkorra izan daben artean, landare-jatorriko produktuak be hor dagoz. 2007ko udabarri hotz eta euritsuak ondorio kaltegarriak izan zituen ekoizpen guztietan; batez be, Gernikako Piperrarengan, Ibarako Piparrarengan eta Arabako Patatarengan.

2008ko datu orokorren arabera, krisi ekonomikoak ez eban eraginik izan Eusko Label produktuen salmentan. Hasiera batean eskariak eskaintza gainditu dau eta, hainbat ikerketek erakutsi dabenez, Eusko Label produktuen kontsumitzaileak oso leialak dira. Hori oso lagungarria da krisi-egoeratan. Gainera, arrazoi ekonomikoengatik, produktu eraldatu eta prestatuen salmentak jaitsi egin dira, produktu freskoen mesedetan. Edozelan be, 2008ko datuak eta joerak dira horreek. Krisiak 2009an kalitateko produktuen salmentan izango dauen eragina ikusteko dago oraindino.

Tomate zopa

OSAGAIK:

- 4 Eusko Labeldun tomate, oso helduak
- Ogi xerra 1
- 4 Koilarakada oliba olio
- 15 koilarakada ur
- Sagardo ozpin koilarakada 1
- Ketchup koilarakada 1
- Gatza

1. Tomateak garbitu eta zatitu, eta ogia desegin.

2. Osagai guztiak irabiagailuaren ontzian jarri eta indarrik handienez eragin, dena ondo txikituta eta batuta geratu daiten.

3. Lortutakoari egoten itzi behar jako tarte batean, eta ondoren iragazi.

4. Lodiegi geratu dela ikusiz gero, ur apur bat gehituko deusagu.

5. Gatza gehitu eta oso hotz zerbitzatuko dogu, gaztaia edo urdaiazpiko zatitxo batzuen laguntzagaz eta baita surimi makilatxo batzuekin be, halan gura badogu.

On egin!



Produktu guztien artean Euskal Okela nabarmendu da.

ARDAOAREN NEGARRA "Izotz ardaoak"



Mikel Garaizabal
Enologoa

Enologikoki icewine edo izotz ardaa izenez ezagutzen den ardao gozoak beste izen jakin bat jasotzen dau bere jatorriaren arabera; esate baterako, Alemanian edo Austrian eginikoak 'eiswein' izenez ezagutzen dira.

Naturalki eginiko ardao honeek oso estimatuak eta nahiko garestiak direla esan geinke. Horren arrazoiak: ekoizteko garaian daukan konplexutasuna. Ardao horreen gakoak mahatsaren deshidratazioan dago. Mahatsa egun batzuk zero azpitik egon ondoren izotzu egiten da; horrela, deshidratazio naturala lortuko dogu. Bukaerako produktua graduazino ez altuko ardaa da, aromatikoak azukre kopuru handiagaz, baina, azido kopurua altua daukanez, azukre hori ez da izaten gozoegia



Eusko Labela: ona den seinale



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Campana
autorizada

Euskal Okela inguruko harategi hauek aurkituko duzu

Abadiño

• PINILLA HARATEGIA
TRAÑABARREN, 29.MATIANA

Zaldibar

• GALLASTEGI HARATEGIA
ZALDUASOLO PLAZA, 8

Otxandio

• GAZTANETA HARATEGIA
ARTEKALE, 25

Durango

• GALLASTEGI HARATEGIA
ANTSO ESTEGIZ KALEA, 1

Iñaki Harategia

• INAKI HARATEGIA
SASIKOA KALEA, 10

Oka Harategia

• OKA HARATEGIA
ANDRA MARI, 3

J.F.

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

Especializatuak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak

Euskal Herrian ekoiztuak, ingurunea errespetatuz eta kontrol zorrotzak pasatuz, gozo-gozoak, eta kalitate handikoak. Honelakoak dira "Eusko Label" zigilua duten gure produktuak. Bilatu logotipoa eta desberdintasuna dastatu.



Orain, gainera, Kalitatezko Euskal produktuekin betetako saski bat irobaz dezakezu



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produktuen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"
Anboto Astekaria
Santana, 6
48200 Durango

Hilera azken astelehenean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kilo 1 Arabako Babarruna; pote 1 "Ibarako Piperrak"; pote 1 Ezti, Idiazabal gazta; botella 1 "Bizkaiko Txakolina"; botella 1 "Arabar Enixakako Ardaa"; botella 1 Arabar Enixakako Olio Barina; Txakolinezko bonoi-kutxa 1 eta 30Eko txantel 1 Euskal Oletaz, Euskal Ene Bilatiaz edo Euskal Baserriko Ollaizkiaz trukatzeko.



Pedro Pablo Arrinda
Irakaslea

Mirariak

Jakina da gizartearen sekularizazio prozesuak ekarri duela elizaren dogmetan gutxiago sinestea, eta horrek ekarri du frogatzen ez diren ekintzatan sinesgarritasun falta edukitzea. Multzo honen barruan mirariak sar ditzakegu, miraria bera frogatzea erraza ez delako.

Baina kasualitatea izan zen ez, metodo zientifikoa erabiltzen aurkitu izan dut miraririk, gaur egun, egon badagoela nire arloko esparruan.

Kristautasunak hilabeteak behar ditu proposamen baterako. Maiatza Ama Birjinaren hilabetea izaten da, eta bera goraitzeko mezak eta errezoak antolatzen dira. Dena debozio logika baten sartzen da, baina justu hurrengo hilabetean, ekainan, ez dakit Ama Birjinak bere eragina edukiko duen edo ez, bat-batean, gaixorik egondako pertsona askok "alta" hartzen dute lanerako berriro prest egoteko, nahiz eta zoritzarrez, hain justu ere, oporrak hartzeko sasoia izan. Gauza bera suertatzen da bai Gabonetako bai Aste Santuko oporretan; horregatik, baliteke norbaitek pentsatzea Jesusen jaiotzak eta heriotzak bere eragina edukitzea.

Hala ere, salbuespenak badaude, eta urteko edozein egunetan oposaketak daude: nean, frogatzen da hauek amaitu ondoren altakopurua berriro ere hantitzen da. Jesusek edukitako kalbarioaren ondorengo (frogak) paradisuarekin lotuta egongo ote da? Hau da marka: sinesteko jaioak gara!

Eta geure gorputzak hormona zirraragarri honen maila urria duenean? Bada, esaterako, txokolatean dagoen feniletilamina ordeztu naturala da. Era berean, ariketa fisikoa egitean sortzen diren adrenalina eta serotoninak oxitozinaren gabezia disimulatzen laguntzen dute. Besterik ezean, hirekin ohean!

"Lesinoak dakarren guztia da kirolaren alde garratzena"

Oletakoak baserriagaz lotuta ikusten dau etorkizuna, kirola bizitza osorako ez dela izaten jabetuta

Borroka eta baserria familiaren ezinbesteko laguntzagaz bateratzen ditu Pekindik Oletara diploma olinpikoa ekarri eban 31 urteko borrokalariak. Pisua altxatzeko gimnasioa baserrian dauka; teknika, barriz, Gasteizen lantzen dau. Idiazabalgo jatorria daukan gaztai ekoizlea be bada.

Entzun dogu inoiz ez zeunkela baserria itziko...

Baserrian hazi naz, eta barruan daroat. Madrilen be egin ditut urte bi, eta lekuz kanpora sentitzen nintzen. Etxean lez inon be ez; baina, ez etxean bakarrik, inguruan edo baserrian sentitutakoak ez nituen sentitzen. Gurasoak jubilatzerakoan be pena emoten eustan baserria izteak; dena dela, laguntza handia daukat.

Inoiz aukeratzea eskatuz gero, borroka ala baserria?

Etorkizuna base-

rriari begira pentsatuta daukat. Bizi osorako ez da izaten kirola; sasoi hau bizitzeko aukera daukat, eta ahal dodan artean jardungo dot, baina, muga bat daukala badakit.

Zelan hasi zinen emakumeen borroka praktikatzeko?

Sambo egiten hasi nintzen umea nintzela, 9 urteagaz. Orduan denek egiten eben hori, eta gizon bat etorri zen Otxandiora erakusten. Eskolako guztiok egiten genduen. Orduan, baina, jolasa zen.

Zati baten bada be, orain borroka ogibide be badozu.

Emaitzak eta bekak daukadazela-ko. Hain-

bat urtean ez ditut eduki eta aukeratu beharra dago: kirola edo lana. Baserria hor neukan, bestela ez da erraza; lan egin eta entrenatu...

Gaztaia produzitzea ala eliteko kirola da gatzagoa?

Bakotxak bere gauza dauka. Gaztai on bat egitea ez da erraza: esne ona behar da, eta norberak egin da beti bardin egiten dela uste arren, badira guztiz ondo egiten ez direnak, eta ez dau guztiz ondo irtetzen. Baina, gaztaia egitea goi mailako kirola egitea baino askoz errazagoa dela uste dot.

Baten bat beldurtuko dozu...

Esan izan deuste borrokalari izanda ez direla nigaz sartuko. Baina, kalean borrokatzeko ohiturarik ez daukat. Honetan banabil horretarako da, adrenalina kirolean botatzeko eta lasai bizitzeko.

Arraroa da emakumeak borrokan jardutea...

Bai. Goi mailan andra askorik ez dagoela egia da; Euskadin ia ez dago. Bestalde, goi mailara helitzean badago une bat, emaitzak ikusita agerian geratzen dena gizonen txapelketa gehiago ditueela; nesken mailan, gutxiago dira sariak... Traba gehiago ez dakit, baina erraztasunik ez daukagu.

Espainian urrea lortu barri dozu.

Bai, nazinoartean dihardugunok gabiltz Espainian, baina, asko ez dagoz egunero entrenatzeko prest. Ordu eta urte asko behar dira maila hartzeko. Honegon behar da, baina, nahiko erraza egiten jat.

Pekin ondo gogoan izango dozu.

Oso polita izan zen. Brontzea eskura edukita, 5. postua txarto hartu neban, baina, balantzea eginez: euskalduna, herri txiki batekoa eta diploma olinpikoa lortzea...

Dominak dira alde gozoa, eta lesinoak garratza.

Lesinoak dakarren dena da garratzena. Ahaztu egiten zaitue, eta denporapasatuta behean egonda barriro goi mailaraino heltzea oso gaxa da. Lesinoak izan ditut, bata bestearen atzean, baina, bada-gu laguntzen zaituenik.

Athleticeko Koikili herri- deagaz jardun dozu inoiz?

Bai, eta futbolekin ikusten jakon grina txikitatik dakar. Borrokan be halakoa zen!

Maider Unda

Pekingo Joku Olinpikoetan emakumeen borrokan bosgarren geratu zen

Idiazabalgo jatorria daukan gazta ekoizlea da Oletan

